2026-11-20 OSTIRALA
37. ZENBAKIA

DEBABARRENEKO ASTEKARIA
BARRENA.EUS / TOKIKOM.EUS

Barrena

Matxismoaren kontra, euste-horma

Indarkeria matxistaren kontra konpromiso kolektiboa hartzera deitu dute erakundeek eta mugimendu feministak, eta askotariko ekintzak antolatu dituzte Azaroaren 25aren harira / 9, 16, 19 eta 27



Ermuko Mugimendu Feministak deituta Martxoaren 8an herrian egin zuten manifestazioa, Abeletxeko tunelean. ANDER GOMEZ

INGURUMENA

Baso Biziak: sei urte basoak lehengoratzen eta ekosistema oso bat berreskuratzen

160 bat hektarea birpopulatu eta babestu dituzte Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen / 2-3



Baso Biziak taldeak egindako deialdira batutako boluntarioak, lanean. BASO BIZIAK

TXIRRINDULARITZA

Nazioarteko izaera izango du aurtengo Elgoibarko ziklo-krosak

Bihar, zapatua, jokatuko dute, Mintxetan, eta 400 parte-hartzaile inguru biltzea aurreikusten dute antolatzaileek / 11



Iazko argazki bat. ASIER ORBEA

ATLETISMOA

Juanjo Alcelay omentzeko krosa antolatu du Deba Xtreme Kirol Taldeak urtarrilerako / 24



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

HERRI-KIROLAK

Euskadiko Trontza Txapelketa irabazi du Uxue Ansorregi mendaroarrak, Aurkene Arokarekin batera / 11



LAGATAKOA

LITERATURA

'Tonta' eleberria aurkeztu du Jasone Osorok, hotel abandonatu batean girotua / 5

Basoak biziberritzeko ekimenak, ehunka herritarren bultzadarekin

Bertako basoak berreskuratzeko dihardute lanean Eibarko, Soraluzeko eta Elgoibarko Baso Biziak elkarteek, biodibertsitatea sustatu, ingurumen-kalitatea hobetu eta etorkizuneko belaunaldiei ondare natural hobea lagatzeko

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Sei urtetik hona, udazkenean hasi eta udaberria bukatu aurretik, Debabarreneko hiru udalerritan, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen, ehunka herritar boluntariok zuhaitz-landaketak egiten dituzte inguruko mendietan. Bertako zuhaitzak eta zuhaixkak landatzen dituzte.

Landaketak egiteaz aparte, dibulgazio- eta hezkuntza-lanak egiten dituzte, hitzaldiak, tailerrak, hazi-bilketak, ibai-garbiketak… bakarka zein bestelako elkarteekin.

Baso Biziak izenarekin elkarteak sortu zituzten, eta haien eskutik egiten dituzte jarduera horiek guztiak, Lurgaia Fundazioarekin elkarlanean. Ehunka bazkide dituzte herri guztietan.

Soraluzeko Baso Biziak Elkartea izan zen eskualdeko lehena; Eibarko Baso Biziak Taldeak segituan hartu zuen lekukoa, eta Elgoibarren ere sortu zuten Elgoibarko Baso Biziak Elkartea, orain dela lau urte.

Bertako basoen "egoera kritikoaz" eta "tamalgarriaz" jabetuta eta etorkizunarekiko kezkak bultzatuta erabaki zuten zerbait egiten hastea.

Monolaborantza: pinua

Urte luzez, pinua izan da inguruko mendietan zuhaitz mota ia bakarra. 50eko eta 70eko hamarkadetan sartu zuten masiboki, hazkunde erraza zuela-eta etekin ekonomikoa eskuratzeko.

Soraluzeko Baso Biziak Elkarteko Antton Alberdik gogora ekarri duenez, 2000. urtean Soraluzeko paisaiaren azaleraren %80 radiata pinua zen. Eta antzera inguru osoan, harik eta 2018an mugagabe hedatzen hasi zen banda marroiak pinuak gaixotu eta haien esplotazioa galarazi zuen arte.

"Ongizaterako ezinbestekoak"

Pinuen faltan, leku askotan, bereziki, Bizkaian, eukaliptoa landatzen hasi ziren. Hura ere, masiboki.

Orduantxe hasi ziren bertako basoa bultzatu nahi zuten elkarteak sortzen; besteak beste, Debabarrenean. "Basoak ez dira egur-ekoizpenerako azalera hutsak. Urte askoan, gure mendien kudeaketa ia erabat ekoizpenaren ikuspegitik egin da. Ez dugu ekoizpen-jarduera baztertzen, baina uste dugu basoek beste funtzio asko dituztela: biodibertsitatea, ura, lurzorua, klima eta gure bizi-kalitatea. Baso naturalak ez dira luxu bat; gure ongizaterako ezinbestekoak dira", esplikatu du Eibarko Baso Biziak Elkarteko Mikel Jauregik.



Soraluzeko Baso Biziak elkartea. EGOITZ UNAMUNO



Elgoibarko Baso Biziak Elkartea. LAGATAKOA

Ekosistema osoan eragina

Hark dioenarekin bat eginez, baso naturalen garrantzia azpimarratu du Elgoibarko elkarteko Jon Lizarraldek. "Zuhaitz eta zuhaixka espezie desberdinak izateak basoaren egitura eta aniztasuna handitzen ditu, eta horrek eragina du bertan bizi diren animaliengan eta landareengan. Faunari dagokionez, espezie bakoitzak elikagai eta babesleku desberdinak eskaintzen ditu. Zuhaitzen fruituak, haziak, loreak eta hostoak hainbat animaliaren elikagai dira. Bestalde, hainbat zuhaitz eta zuhaixkak habiak egiteko, ezkutatzeko edo bizi izateko leku gehiago eskaintzen dituzte. Horrek, pixkanaka, animalia-espezie gehiagorentzat habitat egokiak sortzen laguntzen du, hala nola hegaztientzat, intsektuentzat eta ugaztun txikientzat. Florari dagokionez ere aldaketak gertatzen dira; zuhaitz-espezieen aniztasunak eta basoaren egiturak askotariko baldintzak sortzen dituzte lurzoruan, argitasunean eta hezetasunean. Horren ondorioz, baso barruko landare, goroldio eta iratze espezieak garatzeko aukera sortzen da. Azken finean, ez da zuhaitzak aldatzea soilik; ekosistema oso bat berreskuratzea da helburua".

Horri guztiari beste onura esanguratsu batzuk ere gehitu dizkiote hirurek; Alberdik laburbildu ditu: "Ura gorde eta babesten dute, lurra erosiotik babesten dute, aisialdirako guneak dira, beroaren babesleku eta klima erregulatzaileak dira, egurra eta onddoak ematen dizkigute… Asko dira onurak, egur merkeaz harago".

Ekimen zibil eta komunitarioa

Sei urteotan, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen, 160 hektarea baino gehiago birpopulatu edo babestu dituzte. Jauregik esan du hektarea horiek guztiak ez direla landatuak izan: "Batzuk baso naturalak dira, beste batzuk lehengoratzen ari dira eta beste batzuetan naturari bere kabuz berreskuratzen uzten diogu".

Halaber, landaketak egiteko zein basoak babesteko, lurrak erosi ere egin dituzte, edo, bestela, lur-jabeekin hitzarmenak adostu. "Zaintza-akordioak lur-jabeekin sinatzen dira; landaketak egiten dira, ugazabarentzat kostu ekonomikorik eragin gabe, eta, trukean, zenbait urtetan sail horretan esku hartzerik egingo ez duen konpromisoa hartzen du. Lurren erosketak elkarteko bazkideen diruarekin egiten ditugu eta etorkizunean herri lurrak izango dira. Gurea ekimen zibila eta komunitarioa da, eta erabiltzen den diru guztia herriari bueltatuko zaio, herri-lur moduan", azaldu du Soraluzeko Alberdik.

"Lursailak erosteak aukera ematen digu erabakiak gure kabuz hartzeko eta basoa berreskuratzeko lanak epe luzera planteatzeko, beste interes batzuen menpe egon gabe. Gainera, guretzat garrantzitsua da lur horiek herriaren eta naturaren zerbitzura jartzea. Ez dugu basoa soilik landatu nahi; lur horien erabilera eta etorkizuna naturaren kontserbazioari lotuta egotea nahi dugu", gaineratu du Lizarralde elgoibartarrak.

"Esango nuke gure proiektuaren alderdirik estrategikoeneta-

"Ez da normala baso azaleraren %80 espezie bakar batek osatzea"

A. ALBERDI, SORALUZEKO BASO BIZIAK



"Azken finean, ekosistema oso bat berreskuratzea da helburua"

J. LIZARRALDE, ELGOIBARKO BASO BIZIAK



"Baso bat bizia da: ura, biodibertsitatea, lurzorua eta etorkizuna da"

MIKEL JAUREGI, EIBARKO BASO BIZIAK



ko bat dela. Zuhaitzak landatzea garrantzitsua da, baina lurra babesteak bermatzen du basoaren etorkizuna", borobildu du Mikel Jauregi eibartarrak.

Aldaketa, bistakoa

Natura esker onekoa da, eta, apenas sei urte pasatu badira ere, inguruko mendietan udazken koloreak ere badira.

Baina, Jauregik dioenez, aldaketa sakonagoa da: "Aldaketa ez da paisaian bakarrik ikusten; basoa osatzen duten bizidunen arteko harremanak berreskuratzen ari dira".

Epe luzeko lana dela ere azpimarratu dute: "Espezie aloktonoz osatutako lursailak ziren lekuetan, bertako zuhaitz eta zuhaixkak hazten ari dira. Zuhaitzak hazten eta basoa egituratzen doan heinean, paisaia ere aldatzen doa. Hala ere, baso bat berreskuratzea epe luzerako lana da. Urte asko beharko dira baso heldu bat izateko, baina dagoeneko ikusten ari gara egindako lanaren emaitzak. Horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen digu", dio Lizarraldek.

Ildo beretik jo du Alberdik: "Oso garrantzitsua da baso helduak edukitzea, zuhaitz zaharrak; horiek dira espezie askoren gordeleku eta kume-leku. Hortxe dago eginbeharra. Denbora behar da ganorazko baso bat garatu dadin; gutxienez, 80 urte".

Gauza bera dio Jauregik ere: "Helburua ez da mendiak zuhaitzez betetzea. Helburua da berriro basoak izatea. Gaur egiten ari garena ez dugu guk bakarrik gozatuko; ondorengoek jasoko dute".

Bilakaera horretan, lur-jabeei ere egin die aitortza Alberdik: "Joera aldatzeko pizgarri bat izan gara, eta mendian ere lan asko egin dugu lurrak erosten eta zuhaitzak landatzen. Baina, batez ere, bertako basoaren bilakaera positiboa izatearen eragile nagusia da bertako basoaren eta bioaniztasunaren alde jarduteko lur-jabeek hartu duten erabakia".

Eibarko, Elgoibarko eta Soraluzeko Baso Biziak Elkarteetako kideei egindako elkarrizketak osorik argitaratuko dira *Barrena.eus* atarian, domeka honetan.



Eibarko Baso Biziak Elkartea. LAGATAKOA

Eibarren, urtean, 1.000-1.300 zuhaitz inguru

2020ko amaieran sortu eta 2021eko otsailean erregistratu zen Eibarko Baso Biziak taldea. Urte hartan egin zituzten lehen landaketak, Unben eta inguruan eta Haritzabarran. Orain, ia "50 hektareako sare ekologikoa" dute jabetzan zein kudeaketan. Landaketak egiteaz bat, lursailak erosi, lur-jabeekin hitzarmenak, irteerak, ibaia hobetzeko ekimenak… egin dituzte.



Mendiaren beheko zatia goikoaren moduko bihurtuko du Eibarko taldeak. LAGATAKOA

Baso-ekosistema helburu

Landaketetan, "baso naturaletan ohikoak" diren espezieak –haritza, lizarra, urkia, gaztainondoa…– eta "zuhaixkak eta fruitu-espezieak ere sartzen dituzte –gorostia, aranondoa, gereziondoa…–. "Helburua ez da zuhaitz asko edukitzea, baso-ekosistema oso bat berreskuratzea baizik. Espezie bakoitzak bere funtzioa dauka, eta zenbat eta maiztasun handiagoa izan, orduan eta ekosistema sendoagoa eta erresilienteagoa dugu. Helburua baso jarraitua lortzea ere bada, eta Eibarko baso naturalen arteko loturak berreskuratzea", esplikatu du Mikel Jauregik, Eibarko Baso Biziak Taldeko kideak.



Elgoibarren egindako landaketetako baten emaitza. LAGATAKOA

Elgoibarren, hiru urtean, 9.259 zuhaitz

2022an erregistratu zen ofizialki Elgoibarko Baso Biziak Taldea, nahiz eta ordurako bazeramaten urtebete lanean. Bertako basoa berreskuratzea eta sustatzea" dute helburu, "animalia-espezieentzako bizilekuak sortuz, biodibertsitatea mantenduz eta udalerriaren ingurumen-kalitatea hobetuz". 2022-2023ko neguan landaketekin hasi eta harrezkero 9.259 zuhaitz landatu dituzte Muskiritzu magalean. 59 hektarea lursail kudeatzen dituzte: jabetzan –15,2 hektarea– eta hitzarmen bitartez –43,74 hektarea–. Landaketez aparte, irteera gidatuak, tailerrak, jarduerak eta ekintza kolektiboak, behaketa saioak eta kultura- eta dibulgazio-saioak ere egiten dituzte.

"Baso-ekosistema berreskuratzea"

"Espezie autoktonoak aukeratzearen helburua inguruko baldintza ekologikoetara egokitutako baso-ekosistema berreskuratzea da, bertako faunarentzat elikagaiak eta babeslekuak eskainiz", azaldu du Jon Lizarraldek.

Soraluzen, sei urtean, 7.086 zuhaitz landatuta

2020an sortu zen Soraluzeko Baso Biziak, "Sagar Errekan egin ziren matarrasa bortitzen eta ondoren egin ziren eukalipto landaketak ikusita, Bizkaiko egoera larria gure bailaran errepikatu zitekeen" beldurrak eraginda, Antton Alberdi kideak esplikatu duenez. Orduko neguan egin zuten lehen landaketa. Orain arte, 7.086 zuhaitz landatu dituzte, 21 espezietakoak; Ezozin izan ezik, Soraluzeko gainerako baserri-auzo guztietan: "Ea norbait animatzen den lurrak uzten Ezozin".



Soraluze, 2013an.



Soraluze, 2026an. MIKEL VALERO

Herriarendako lurrak

"Askotariko basoak, bertako baso misto atlantikoa sustatzea" eta "falta diren baina egon beharko luketen espezieak berriro agerraraztea" helburu, landatzen duten espezieen erdia haritza da, eta beste erdian denetik dago: hurritza, lizarra, urkia, makatza… Orain, 54 hektarea kudeatzen dituzte, 31 hektarea jabetzan eta 23 zaintza-hitzarmenen bidez. "Ekimen zibila eta komunitarioa da eta erabiltzen den guztia herriari bueltatuko zaio, herri-lur modura".

NIRE USTEZ

Etxea babesleku ez denean



NAIA AIZPURUA
ITAIAKO KIDEA

Asteazkeneko greba orokorraren ostean ere, etxebizitzaz hitz egiten jarraitu beharra dago. Ez alokairuaren prezioaz edo emantzipatzeko ezintasunaz soilik. Etxebizitzaren auziak badu beste aurpegi bat: emakume langileon aurkako indarkeriaren gotorleku ere badira etxeak.

"Zergatik ez du alde egiten?". Zenbat aldiz entzun dugu hori erasotzailearekin bizi den emakume bati buruz? Galdera alderantziz egin beharko genuke: nora joan daiteke? Nola utzi atzean erasotzailea alokairua ordaintzeko dirurik ez badu, semealaben zaintza bere gain badu edo beste etxebizitzarik ez badu? Indarkeriazko harreman batetik ateratzea ez da borondate hutsezko erabakia, baldintza materialak behar dira.

Etxea babeslekutzat aurkezten digute, baina askorentzat beldurraren eta mendekotasunaren espazio bihurtzen da. Eta ez bikotekideen indarkeriagatik bakarrik; etxebizitza-premiak etxejabeen gehiegikerien aurrean ere babesgabe utz gaitzake emakumeok. Diru-sarrera urriak, zaintza-lanak eta alternatibarik eza gurutzatzen direnean, askatasuna bera mugatzen da.

"Etxea babeslekutzat aurkezten digute, baina askorentzat beldurraren eta mendekotasunaren espazio bihurtzen da"

Instituzioek emakumeak babesteko konpromisoa aldarrikatzen dute. Baina konpromiso hori ezin da adierazpenetan geratu. Zer balio du erasotzailea salatzera animatzeak, ondoren etxebizitza duinik, laguntza profesionalik edo babes sozialik bermatzen ez bada? Baliabideak urriak edo eskuratzeko zailak direnean, eta tramiteek emakumeak behin eta berriz haien bizipenak frogatzera behartzen dituztenean, babesak huts egiten du.

Horregatik, etxebizitzarako eskubidea ez da bigarren mailako aldarrikapena, emakume langileon askatasunerako ezinbesteko baldintza baizik. Indarkeria matxistari aurre egiteko, ezinbestekoa da bizi-baldintza duinak bermatzea. Izan ere, emakume batek erasotzailearengandik alde egiteko aukerarik ez badu, ezin dugu benetako askatasunaz hitz egin.

Emakume langileon babesa antolatu behar dugu: berehalako etxebizitza duina, arreta eta zaintza egokia, eta erasotzaileei aurre egiteko sare kolektiboa aldarrikatuz.

Etxebizitza ezin da izan emakume langileok indarkeriara kondenatzen gaituen beste kateetako bat.

GUTUNAK

Gardentasunaren alternatiba, susmoa

M.O.O.
ELGOIBAR

Saramagoren hitzak dira izenburukoak, baina guri buruz dihardute. Izan ere, harro astintzen du Elgoibarko Udalak gardentasunaren bandera; Errezabal obrak eragindako Urazandiko auzotarren aurrean ere etengabe aldarrikatzen du haren garrantzia. Hitzetatik ekintzara igarotzeak nekezagoa dirudi, ordea.

Erakunde bat ez da gardena gardena dela saltze soilagatik. Gardentasunak inplikatzen du haren gestioa herritarrei irekitzea eta haren erabaki, ekintza zein baliabideetara sarbidea bermatzea. Gardentasunak inplikatzen du, besteak beste, herritar batek dokumentazio publikoa eskatzen duenean hura eskuragarri jartzea, inoren pribatutasuna edo segurtasuna arriskuan jarri ezean.

Errezabalgo lanak hasi zirenetik izan dugu kezka auzotarrok, gure etxeetan eragiten ari ziren kalteengatik. Kezka hori areagotu baino ez du egiten lanekin loturiko txostenak helarazteari behin eta berriro uko egiteak Udalak. Zer zaio deserosoa? Zer ezkutatu nahi du? Ni neu apiriletik aritu naiz horiek eskatzen: telefonoz lehenik, sarbide telematikoaren bidez ondoren, halako batean udaletxean ikuskatzeko baimena lortu nuen –milaka orri goiz batean, alajaina!–, baina horietako batzuk bidaltzeko eskatu eta berriro ere luzapenak, ia gaur arte.

Berriki Eusko Jaurlaritzaren Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak ebatzi du Udalak dokumentazio hori nik eskatutako formatuan helarazteko betebeharra duela; niri arrazoi eman dit. Eta hala egin du, behingoz. Pozik nago, administrazioaren burokrazia den munstro erraldoi horri bataila txiki bat irabazi diodalako; haserre ere bai, halakorik egiteko beharrik izan beharko ez nukeelako.

Bukatzeko, nire antzeko egoeran dauden herritarrak animatu nahi ditut halako auzibideetan aurrera egitera, administrazioaren luzamendu edo ihesbideen aurrean amorerik ez ematera, eta dagokigun hori exijitzera. Eta Udalari berriz gogorarazi herritarrekin dituen betebeharrak bete behar dituela; are, gure auzoarena bezalako egoera katramilatsu batean.

Markesina ez oso 'markesala', eta utzikeria

DAVID GARCIA
SORALUZE

Markesina hitza, antza denez, *markesa* hitzetik dator. Badirudi jendea euritik babesteko ate nagusiaren gainean jartzen zen teilatu txiki bat izendatzeko erabiltzen zela. Zubi nagusiko autobus markesinak funtzio hori, momentuz, mantentzen du, baina izaera *markesala* aspalditik galdu du eta Udal Gobernuaren utzikeriaren metafora ezin hobea bihurtu da.

Batetik, beirazko paneletan pilatzen diren kartelak geruzaz geruza metatzen dira, inork garbitu gabe. Horrela egoten dira asteak eta asteak, eta itxura narrasa ematen dute. Bestetik, azkenengo bi asteotan, markesinaren barruko argia eta ordutegien pantaila informatiboa itzalita egon dira. Ez da lehenengo aldia, eta beti egun mordo bat igaro behar dira konpondu arte. Bereziki ulertezina da gertatzea, udaltzainen bulegoaren aurrean egonda. Benetan ez da inor konturatzen arazo horretaz?

Indarkeria matxistaren aurrean, antolakuntza eta borroka!

ITAIAKO KIDEAK
MENDARO

Azaroaren 25ean berriz ere kaleak hartuko ditugu, indarkeria matxistaren aurkako aldarria zabaltzeko. Ideia faxisten eta erreakzionarioen hedapenarekin batera, matxismoaren normalizazioa gero eta agerikoagoa da, eta emakumeon aurkako indarkeriak gure eguneroko errealitatea izaten jarraitzen du.

Azaroaren 25ean, Ermuan, 18:30ean, San Pelaio plazan, mobilizatuko gara; Mendaron, berriz, 18:30ean, herriko plazan, indarkeria matxistaren aurkako talde-argazkia aterako dugu.

Eraiki dezagun gure herrietan matxismoaren aurkako euste-horma!

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez, Asier Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi Mendieta, Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako Udala · Elgoibarko Udala · Ermuko Udala · Mallabiko Udala · Mendaroko Udala · Mutrikuko Udala · Soraluzeko Udala · Debebarreneko Garapen Agentzia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA Foru Aldundia

Babestutako hedabidea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

"Gozatu egin dut eleberria idazten; orain, espero dut irakurleak ere gozatzea"

JASONE OSORO IDAZLEA

'Tonta' izeneko eleberria kaleratu du berri du Jasone Osorok, Erein argitaletxearekin; abenduaren 7an, Durangoko Azokan aurkeztuko du liburua



Jasone Osoro, eleberria eskuetan duela. LAGATAKOA

Ainhoa Andonegi

Bai adinean bai izaeran alde handia duten bi emakume dira Jasone Osororen azken eleberriko protagonistak: *Tonta*. Astelehenean aurkeztu zuen liburua, Donostian, eta atzo Elgoibarren izan zen, Pitxintxu liburu-dendan.

Nolakoa izan da azken eleberria sortzeko prozesua?

Hasierako kaosa hasi nuen garaia ez dut gogoratzen, baina gordetako lehenengo artxiboak 2024koak direla uste dut. Lehenengo fasea nahiko kaotikoa izaten da; ideia zaparrada bat egin, dena jaso eta gorde egin behar da. Nire kasuan, fase hark oso luze jo zuen, ez neukalako oso garbi zer kontatu nahi nuen. Gero, ordena etortzen da, eta bigarren fase horretan erabaki egin behar da kontatuko duzun istorioa. Urtebete pasatxo egongo nintzen ideiak ordenatzen, eta fase hartan lagundu egin zidan eleberriaren kokapenak. Argi neukan abandonatutako hotel batean girotuko nuela istorioa, eta eraikin haren prozesua irudikatu nuen: noiz hasten den lizuntzen, arrakalak noiz irteten diren, horrek sortzen duen zarata... Behin erabakiak ordenatuta, beste urtebete inguru eman nuen eleberria idazten.

Zer da *Tonta*?

Ez da erraza liburu bat definitzea, baina esango nuke bi galdera daudela eleberri horren oinarrian: bata da zein den gure lekua munduan; eta bestea, zertara gatozen mundura. Bi emakume dira protagonistak, eta biak galera baten aurrean daude. Brigitte 19 urteko neska gaztea da; aita galdu zuen lehenengo, eta ama ondoren. Bakarrik dago munduan eta sentitzen du mundua ez dela bizi izateko toki seguru. Bestetik, Regina dago, 60 urte ingurukoa. Bizitzaren zama darama bere gain, eta badaki munduan edozer egiteko gai den jendea dagoela, aurrera egiteko. Brigittek hotel bat dauka, ama hil zenean herentzian jaso zuena, eta hotela berritzen ari da. Reginak hotel guztia alokatuko du, une horretan isiltasuna behar

"Klabea da 'tonta' hitza; ez da besterik gabe ipinitako izenburua"

duelako, margolanak sortzeko. Galduta dago, zahartzen ari delako, prestigioa galdu du, munduak kasurik egiten ez diola uste du... Bien arteko konplizitate- eta zaintza-harremana sortuko da. Denborarekin, ordea, harremana gaiztotu egingo da. Botere-harreman bat sortuko da, sumisioa, boterea... eta gizonezko bat agertzen den unean are gehiago zailduko da egoera. Muturreko egoerak sortuko dira, eta hori guztia sekretu batek zeharkatzen du: irakurleak badaki, baina protagonistetako batek ez. Hori lehertu egin daiteke edozein unetan.

Animaliek ere leku berezia dute eleberrian.

Bai; era guztietako ugaztunak eta narrastiak sartu ditut, baita hegaztiak eta intsektuak ere. Oso modu intentsuan sartu ditut guztiak. Atmosfera itogarria sortu nahi izan dut animalien bidez, ezinegona, misterioa... Eta *tonta* hitza da klabea; ez da besterik gabe ipinitako izenburua. Nobelaren momentu batean hitz horrek dena bizkortzen du; ez da atzera-bueltarik egongo. Izenburu deigarria da, eta eleberria bera ere txundigarria dela esango nuke; haren laburrean, sakona eta iluna da.

Hasi eta bukatu egiten da eleberria, kapitulurik gabe; zergatik?

Saiatu naiz irakurketarekin ere itogarria sortzen. Helburua da poliki-poliki hastea irakurtzen, eta bat-batean kolpe bat iristea. Liburuan zehar kolpe bortitz asko daude. Errealismo magikoa zein literatura fantastikoa erabili ditut idazkeran. Saiatu naiz errealismo zikina edo iluna edertasunetik sortzen. Hizkuntza poetikoa ere sartu dut, eta hiztegi aldetik ere egin dut saiakera berezia.

"Esango nuke orain arte idatzi dudan eleberririk borobilena dela"

Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai, pozik geratu naiz. Hasiera, korapiloa eta amaiera dituen istorio borobila da, eta saiatu naiz bizitzaren galderei erantzuten. Gozatu egin dut eleberria idazten, eta orain, espero dut irakurleak ere gozatzea. Esango nuke orain arte idatzi dudan eleberririk borobilena dela, eta igartzen dela idazle moduan izan dudan eboluzioa. 30 urte daramatzat honetan, eta liburu horretan agertzen dira irakurle moduan ere izan ditudan erreferenteak; beste idazle batzuekiko keinuak ere sartu ditut. Bidelagun onak izan ditut liburuaren sorkuntza-prozesuan, eta oso lagungarria izan da jaso dudan aholkularitza.







Herritarrekin ospatu du Nualak Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna

Nuala elkarteak 10 urte bete ditu aurten



Maialen Gurrutxagak oroigarria eman zion Nuala elkarteari. UDALA.

Ainhoa Andonegi

Nuala elkarteko kideak kalera irten ziren zapatuan, desgaitasuna ikusarazteko asmoz. Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen den arren, Nuala elkarteak aurretiaz ospatu du aurten. Ekitaldiaren helburua desgaitasuna duten pertsonen egunerokotasuna ikusaraztea eta herritarrak sentsibilizatzea izan zen. Herritarrek elkartearen jarduerei eta zerbitzuei buruzko informazioa jaso zuten informazio-guneetan, eta haurrek, berriz, jolas-eremuaz gozatzeko aukera izan zuten.

10 urte

10 urte bete ditu aurten elkarteak, eta Maialen Gurrutxaga alkateak oroigarri bat eman die arduradunei, herrian egiten duten lana aitortzeko. Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkie Nuala Elkarteari eta jardunaldian parte hartu zuten herritar guztiei. Horrela, herri inklusiboago eta solidarioago baten aldeko konpromisoa berretsi du, desgaitasuna duten pertsonek herriko bizitzan parte-hartze osoa izan dezaten.

Era berean, San Antolingo Jai Batzordeko antolatzaileek ere egin dute Nualarentzako ekarpena; izan ere, aurtengo errifaren irabazleak ez dira agertu, eta, hain zuzen ere, saritarako gordeta zituzten 500 euroak Nualari eman dizkiote.



Umeen txokoan, umeak jolasean. AINHOA ANDONEGI

Odol emaileak omendu dituzte

Emandako odol kopuruaren araberako dominak eman zizkieten odol emaileei



Omendutako odol emaileak. ODOL EMAILEEN ELKARTEA

A.A.

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman zizkien, zapatuan, Elgoibarko odol emaileei. Jubilatuen Biltokian egin zuten ekitaldi xumean egin zieten aitortza guztiei, eta bakoitzak emandako odol kopuruaren arabera banatu zituzten dominak. Ondoren, mokadutxoa egin zuten elkarrekin.

23 omendu

23 lagunek jaso zuten domina guztira. Hauek dira odola 25 aldiz eman duten herritarrak: Ernesto Arrizabalaga Zubizarreta, Aitor Arruabarrena Gurrutxaga, Miguel Correa Campon, Maria Ascension Feijoo Marquez, Maitane Gallastegi Zulaika, Aitor Garate Aranberri, Esteban Izagirre Uria, Maite Landaburu Azkarreta, Ivan Ondarza Asensio, Ibana Ortueta Zulaika, Ion Ulibarri Mantzisidor eta Jose Manuel Vela Vlazquez; hauek, 40 odol emate egin dituztenak: Idurre Esnaola Aranguren, Inma Griñon Perez eta Josune Larreina Igoa; 50 aldiz, berriz, hauek eman dute: Roberto Altzerreka Etxeberria, Jesus Arrieta Mendikute, Mikel Arzamendi Mujika, Miguel Angel Castro Garrues eta Josu Mujika Latxa; azkenik, Maria Teresa Gabiola Altzibarrek 60 aldiz eman du odola, eta Francisco Dieguez Gomezek eta Constan Nuñez Gañanek, 75 aldiz.

Abenduaren 4an piztuko dituzte Gabonetako argiak

Abenduaren 4tik urtarrilaren 6ra egongo dira martxan Elgoibarko Eguberrietako argiak, 18:00etatik 22:00etara. Guztira 159 argi-egitura jarriko dituzte, herriko 21 espazio eta kaletan. Aurrekoan bezala, aurten ere Lekueder gunean dagoen zuhaitz batek argiztapen berezia izango du.

Bestetik, Lerun biribilguneko argiteria Maala biribilgunera eramango dute, eta Lerunen apaingarri sinboliko bat egongo da. Hain zuzen ere, argiztapen-kanpainak 35.000 euroko kostua izango du.





Saridunak eta hainbat partaide, Karakaten. ASIER ORBEA



Iñigo Lariz, lasterketako azken metroetan. AINHOA ANDONEGI

KARAKATEKO IGOERA

Zazpigarrena irabazita, 'Suso'-ren garaipen kopurua berdindu du Larizek Karakateko Igoeran

Emakumezkoetan Miren Bastida azpeitiarra izan zen Karakateko tontorrera iristen azkarrena, 36.08ko denborarekin. 96 lagunek hartu zuten parte guztira, eta hamabi izan ziren emakumezkoak



Miren Bastida, emakumezkoetan txapelduna. A.A.

Ainhoa Andonegi

Karakateko Igoera jokatu zen zapatuan, Morkaikok antolatuta. 96 lagunek hartu zuten irteera, Kalegoen plazan, 11:00etako kanpaiak jotzeaz bat, eta saltaka abiatu ziren Karakaterantz, norberak nahi zuen bidetik. Ikusleak goian zain-zain zeudela agertu zen Iñigo Lariz, inork espero ez zuen bidetik, ezustean. 29.18ko denborarekin, zazpigarren txapela jantzi zuen elgoibartarrak, eta horrekin, berdindu egin du orain arte Jose Maria Fernandez *Suso*-k zeukan garaipen kopurua. Iñaki Goenaga soraluzetarra izan zen bigarrena, 29.29ko denborarekin, eta Julen Aranguena durangarra izan zen hirugarrena, 30.23ko denbora eginda.

Hamabi emakumezko

Miren Bastida azpeitiarra izan zen emakumezkoetan azkarrena, 36.08ko denborarekin. Mendi lasterketetan ibiltzen bada ere, estreinakoz hartu du aurten parte Karakateko Igoeran. Familia dauka Elgoibarren, baina, bereziki, amamak animatuta eman zuen izena lasterketan, eta txapela jantzita itzuli zen etxera.

Lehenengo emakumezko elgoibartarra Lore Bereziartua izan zen –41.30–, eta gizonezkoetan sari hori Jorge Gonzalezek jaso zuen –32.08–. Aurpegi onenaren saria, berriz, Vanesa Orozkori eman zioten –51.46–, eta irabazlearen denbora halako bi egitetik gertuen gelditu zena Mikel Jose Egizabal izan zen –54.58–.

Informazio gehiago, argazkiak eta bideoak: *barrena.eus*.



Ikusle ugari batu ziren tontorrean. A.A.



Saridunak, Morkaikoko kideekin. A.O.



Ainhoa Lendinez, helmugara iristen. A.A.



Mikel Jose Egizabal, 13 urterekin, partaide gazteena. A.O.

NIRE USTEZ

Azaroaren 22a: Santa Zezilia, Musikarien Eguna



ALAITZ ALMORTZA
IRAKASLEA

Aste bizi-bizia izaten ari da honako hau musikari dagokionez. Kalejirek eta kontzertuek kaleak alaitu dituzte hainbat egunetan eta asteburuan ere izango da aukera musika doinuez gozatzeko. Umeengandik hasita, helduek zein adineko pertsonek hartu dute –eta hartuko dute– ekitaldi hauetan parte, herriari formatu eta mota askotariko musika eskainiz. Gehientsuenek jakingo duzue horren arrazoi nagusia zein den: igande honetan, azaroak 22, Santa Zezilia Eguna izango da, Musikarien Eguna.

Haurra nintzela, eskolako goizean goizeko kalejiran parte hartzen nuen, musika eskolatik ere kalera ateratzen ginen eta auditoriumean kontzertuak ematen genituen. Orain ere, ikasleekin batera emanaldiak prestatzen jarraitzen dut. Udal Musika Bandak mimo handiz prestatutako kontzertua disfrutatzeko aukera izango dut, baita ondoren etorriko den bazkaria ere –eta gero, gerokoak–.

Egun hau ospatzearen zergatiari ez diot inoiz buelta askorik eman. Hala ere, kuriositateak jota, Santa Zezilia musikarien patroia zergatik den ikertzen ibili naiz iritzi-artikulu hau idazten hasi aurretik. Barkatuko diozue nire kristau jakintzarik ezari, baina, oso-oso labur esanda, Zezilia, Erromako familia noble batekoa, kristau bihurtu zelarik martirizatu egin zuten. Bizirik zela Jesusi abesten omen zion, eta diote bertatik datorrela musikarekiko lotura hori. Gaur egun, santuen izenak erabiltzen jarraitzen dugu, baina noiz arte? Ez dakit zuei, baina niri azaroaren 22a, Musikarien Eguna *a secas*, agian, gehiago gustatzen zait.

KLIK

Tokikoaren balioa



JOSERRA CABRERA
ARGAZKILARIA



Gaztainen eta tokiko azoken garaia da; gertukoaren balioa estimatzen laguntzeko ezinbestekoak diren ekitaldiak, hain zuzen. Azoka horietan, bertako ekoizleen lan gogorra ikusten dugu, eta ohartzen gara gauza guztiek dutela balioa; batez ere, sortzen dituzten produktuetan islatzen denean. Ez gaitezen saiatu haien ahaleginari preziorik jartzen; benetako balioa benetakotasunean datza. Babes ditzagun tokiko produktuak.

SEMAFOROA

Botoiak faltan



"Aita Agirreko OTA-TAO makinari hainbat botoi falta zaizkio, eta batzuei zaila egiten zaigu gure ibilgailuaren datuak sartzea. Eskertuko genuke makina konponduko balute. Eskerrik asko".

Mendizaletasuna sustatzeagatik, txalo

"Morkaiko mendizale taldea txalotu egin nahi nuke, mendizaletasuna sustatzeagatik egiten duen lanagatik. Mendi emanaldi bikainak antolatu ditu aurten ere, eta joan den asteko Karakateko Igoera ere bikaina izan zen, urtero bezala. Partaideek zein ikusleek gogotik gozatzen duten horietako proba da Karakatekoa. Etxekoa, gertukoa... Familian sentitu ginen denok han goian. Umeentzako mendi irteerak ere antolatzen dituzte, txikitxoak mendira



erakartzeko. Txalotzekoa da boluntario egiten duten lan guztia".

Umeentzako zinema-emanaldiaz

"Joan den domekan ez zen umeentzako zinema-emanaldirik egon Herriko Antzokian, magia ikuskizun bat zegoelako programatuta Aita Agirren. Esan nahi dugu ez zitzaigula ondo iruditu; izan ere, magia ikuskizun horretarako izena eman behar zen, eta beteta zeuden talde guztiak. Ez zen ikuskizun ireki eta masiboa; beraz, uste dugu zinema-emanaldia ere mantendu egin behar zela. Arduradunek hurrengoetarako aintzat hartzea eskertuko genuke".

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58

AZAROAREN 25A

Hainbat ekintza antolatu dituzte datorren asterako, indarkeria matxistaren kontra

Azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, 19:00etan

Ainhoa Andonegi

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elgoibarko eragileek azarorako. Hausnarketa saioak, zinema, kontakizunak, antzerkia eta autodefentsa tailerra eta elkarretaratzea egingo dituzte, besteak beste, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte hartzera.

Azaroaren 25a

Programatutako hainbat ekitaldi egin dituzte dagoeneko, baina azaroaren 25a izango da egun nagusia. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguneko manifestazioa egingo dute 19:00etan Kalegoen plazatik, eta 21:00etan, *Manas* filma proiektatuko dute, Herriko Antzokian. Azaroaren 26an, *Bost axola* bakarrizketa eskainiko diete ikasleei, Herriko Antzokian, eta hilaren 27an, *Lolaren bizikleta* film laburra estreinatuko dute, arratsaldeko zazpietan, Herriko Antzokian. Euskaraz emango dute, gaztelaniazko azpitituluekin. Egitarauari amaiera emateko, emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu dute azaroaren 28rako; 09:30ean izango da, Olaizaga kiroldegian. Egitarau horren antolakuntzan, Elgoibarko Udalaz gain, Olaizaga Kirol Taldeak, Gotzon Garate Udal Liburutegiak, Ongarri Zine Klubak, Uluka Batukak, Haizeak eta LILA Elgoibarko Emakumeen Etxeak hartu dute parte.



Iazko manifestazioko irudi bat. ASIER ORBEA

Verdini taldeak dantzaldia egingo du gaur Herriko Antzokian

A.A.

Verdiniren *Disdira* dantza emanaldia taularatuko dute gaur Herriko Antzokian. Artearen, mugimenduaren eta giza konexioaren ospakizun moduko batean datza obra, eta emanaldian zehar interpretatutako piezak distira egiten du oholtzan, gorputzen energiarekin. 19:00etan izango da ikuskizuna. Sarrerak aurrez eros daitezke, *herrikoantzokia.eus* webgunean, eta, bestela, leihatilan bertan.

Taldeari buruz

Desgaitasun funtzionalen bat duten dantzariek osatzen dute Verdini taldea. Isabel Verdini donostiarrak sortu zuen, Downen sindromea duen ilobari dantzaren bitartez gorputzerako onurak eskaintzeko. Urteekin taldea hazi egin da eta gaur egun hamar dantzarik osatzen dute.



Verdini taldea. SAREA

Giro onean ospatu dute Magosto Eguna

A.A.

Galiza Etxeak antolatuta, Magosto Eguna ospatu zuten joan den zapatuan, Maalako parkean. Goizean goiz ekin zioten erre Galiziatik ekarritako 200 kilo gaztainak danbolinetan erretzeari, eta Ribeiro ardoarekin batera saldu zituzten eguerditik aurrera. Antolatzaileak "pozik" daude aurten ere udazkeneko festa horrek izan duen harrerarekin. Errotuta dago herrian dagoeneko, eta herritar ugari batu zirela nabarmendu dute. Gaztaina guztiak agortu zirela gaineratu dute, eta jendea "gustura" geratu zela. Gainera, Galiziako beste hainbat produktu dastatzeko eta erosteko aukera ere izan zuten herritarrek.



Magosto jaia, Maalan. GALIZA ETXEA



Gaztainak erretzen. GALIZA ETXEA

Bandaren Santa Zeziliako kontzertu berezia parrokian izango da, bihar

13:00etan hasiko da emanaldia, eta, bandako kideez gain, organo-jole batek ere hartuko du parte

A.A.

Santa Zezilia Eguna da azaroaren 22a; hain zuzen ere, musikarien zaindariaren eguna. Horren harira, kontzertu berezia emango du Udal Musika Bandak. Normalean, domeketan izaten dira bandaren kontzertuak, baina bihar, larunbata, joko dute. Lekua eta ordua ere aldatuta datoz, San Bartolome parrokian izango baita, 13:00etan hasita.

Kolaborazioa

Udal Musika Bandako musikariak ez dira bakarrik egongo biharko emanaldian; izan ere, Ana Belen Garcia Perez (Andoain, 1977) organo-joleak ere hartuko du parte kontzertuan; pieza batean ezik, gainerakoetan joko du organoa. Ibilbide luzea dauka musikan: piano-jotzaile eta klabezin-jotzaile gisa trebatu zen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, eta organoa jotzen Esteban Elizondo eta Esteban Landart irakasleekin ikasi zuen, Musikenen. Ondoren, Loic Mallie, Brett Leighton eta Michel Bouvard izan zituen irakasle, eta Cristobal Halffter Organo Konposizio Lehiaketaren 33. edizioa irabazi zuen. Gaur egun, Donostiako Santa Maria del Coro basilikako organista titularra da, eta 1863ko Cavaille-Coll organo historikoaren ardura du. Era berean, Europako, Ameriketako eta Asiako hainbat herrialdetan aritu da kontzertuak ematen, bakarlari zein kolaboratzaile.

2027rako aurrekontu-proposamena aurkeztu du EH Bilduk Udalean

Datorren asteko osoko bilkuran eztabaidatuko dute aurrekontuaren gaia

Ainhoa Andonegi

Udal Gobernuak aurkeztu zuen, lehenik, datorren urterako aurrekontu-proposamena, eta gauza bera egin du orain EH Bilduk. Aste honetan egin dute EAJrekin proposamenak azaltzeko, eta datorren astean landuko dute 2027ko aurrekontuaren gaia, osoko bilkuran.



Elgoibarko udaletxea. UDALA

Bederatzi esku-hartze

EH Bilduren aurrekontu-proposamenak bederatzi esku-hartze nagusi biltzen ditu, eta, horien barruan, eskaera zehatzak egin dituzte. Lehenengo puntu nagusian milioi bat euro aurreikusteko proposamena egin du Bilduk, Sallobenteko ur-hornidurarako. EH Bilduren iritziz, landa-auzoetako bizilagunek ezin dute herriguneko biztanleekiko desberdintasun egoeran jarraitu, eta Sallobenteko auzoari ur-hornidura publikoaren bidezko zerbitzua bermatzeko eskatu dute kopuru hori. Era berean, etxebizitza eta lurzoru politiketarako diru-lerro bat sortzea ere jaso dute txostenean. Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko "politika aktiboa, baliabide ekonomikoak eta proiektu zehatzak" behar direla diote. Hirugarren puntuan, babesgune klimatikoak sortzeko eta hedatzeko eskatu dute, azken urteetako bero-boladen aurrean zaurgarritasun egoeran dauden herritarrak babesteko.

Lurzoru publikoa edukitzeari ere garrantzia ematen dio Bilduk, eta lurzoru publikoa erosteko aurrekontu-partida "esanguratsu" bat gordetzea proposatu du. Auzoetako irisgarritasuna eta oinezkoen mugikortasuna hobetzea ere eskatu dute, eta, horretarako, irisgarritasun unibertsala ardatz izango duen inbertsio-programa bat garatzea proposatu dute. Seigarren puntuan jaso dute, bestalde, herribus zerbitzua hedatzea eta Irisgarritasun Planean txertatzea. EH Bilduren ustez, zerbitzuaren ibilbideak, ordutegiak eta maiztasunak aztertzea ere beharrezkoa da. Beste puntu batean energia aurrezteko proiektuak aztertzeko partida eskatu dute, eta Batera proiekturako 150.000 euroko diru poltsa proposatu dute. Azkenik, 2026an onartutako Altzola auzoaren eta herrigunearen berroneratze proiektuak garatzeko aurrekontu-partidak ezartzea proposatu dute.

Bilera

Eguazten eguerdian egin zuten bilera EH Bilduk eta EAJk. EH Bilduko arduradunek beren proposamenak azaldu zizkieten, eta, esan dutenez, EAJk PSErekin aztertuko ditu proposamenak, eta erantzuna emango diete. EH Bilduk esan du erantzun horren arabera erabakiko duela aurrekontuaren gaineko botoa.

Errezabaleko obraren informazio faltaren auzia Arartekora heldu da

Duintasunak Arartekora jo du, Aldundiak eta Udalak ez dituztelako erantzun egoitzaren gaineko galderak

A.A.

Duintasuna elkarteak eman duen informazioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ia lau hilabete daramatza Errezabali eta Urazandiko maldari buruzko galderei erantzun gabe; Elgoibarko Udalak, berriz, bi hilabete baino gehiago. "Isiltasun" horren harira, Duintasunak Arartekora eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera jo du, egoera salatzeko. Esan dutenez, administrazio bakoitzari espediente bana zabaltzea onartu dute.



Obrako irudi bat. A.O.

Jakiteko eskubidea

Bestalde, Duintasunak Udalaren aurkako erreklamazioa aurkeztu du Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean; adierazi dutenez, Udalak ez dio erantzun irailaren 9ko informazio-eskaerari, "nahiz eta legeak hilabeteko epea ezartzen duen horretarako". Era berean, nabarmendu dute Udalak ez diola erantzun zundaketak eta maldari buruz urriaren 30ean aurkeztu zuten idazkiari, ezta azaroaren 10ean proiektu aldatuari buruz aurkeztu zutenari ere. Gaineratu dute Aldundiak ere ez diela erantzun uztailean eta irailean egindako eskaerei: "Herritarrek jakiteko eskubidea dutena eskatzen dugu: maldari buruz zer azterketa egin diren, egonkortze-lanak nork ordaintzen dituen eta obrak zer proiektutan oinarritzen diren. Egoitza hau guztiona da", adierazi dute Duintasunakoek.

125 umek hartuko dute parte, hilaren 28an, Elgoibar Kantari egitasmoan

A.A.

Elgoibarrek Kantari ikuskizuna hartuko du, lehen aldiz, azaroaren 28an. Euskarazko kantak eta dantza uztartzen dituen egitasmo horretan, Herri Eskolako eta Ikastolako 7 eta 12 urte arteko 125 gaztetxo inguruk parte hartuko dute, taldeka prestatutako abestiak eta koreografiak oholtza gainean aurkezteko. Antolatzaileek argitu dute ez dela lehiaketa bat, eta egitasmoaren helburua dela gaztetxoen artean euskarazko kantak sustatzea. Besteak beste, ETS, Bulego, Kai Nakai, Hesian, Sukena, Nogen eta Gatibu taldeen kantuak interpretatuko dituzte.

Elgoibarko Udala eta Abao Komunikazio Agentzia aritu dira antolakuntzan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin eta Barrena hedabidearen laguntzarekin. Antolakuntzak bereziki nabarmendu nahi izan du ikastetxeek proiektuan izan duten inplikazioa; Elgoibarko Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola bidelagun izan dituzte hasieratik, eta familien zein parte-hartzaileen inplikazioa ere handia izaten ari da.

Lau saio

Emanaldiak azaroaren 28an izango dira, Elgoibarko Herri Antzokian. Guztira, lau saio izango dira, arratsaldeko 16:30ean hasita, eta emanaldi bakoitzean bost taldek hartuko dute parte. Ikuskizuna herritar guztiei dago irekita, eta edonor joan daiteke ikustera, doan eta aurretik sarrerarik eskuratu beharrik gabe.



Kantari egitasmoaren irudi bat. ABAO

Manifestazioa egingo dute hilaren 26an, pentsio publikoen alde

A.A.

Duintasunak, Elgoibarko Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak, pentsio publikoen aldeko manifestaziora deitu ditu herritarrak. Azaroaren 26an izango da, ostegunez, 12:00etan, Kalegoen plazatik abiatuta.

Eskakizunak

Datozen asteetan, Estatuko Gobernuak pentsioen goratzea erabakiko du, eta Duintasunak eskatzen du erabaki horrek berma dezala pentsiodunek ez dutela erosteko ahalmenik galduko. Horrekin batera, 2019tik galdutakoa urte amaierako aparteko ordainsari baten bidez konpentsatzea ere eskatu dute.

Era berean, gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) garbiarekin parekatzea aldarrikatzen dute; izan ere, haien esanetan, gero eta pentsiodun gehiagok dituzte zailtasunak hil amaierara iristeko. Eusko Jaurlaritzari, berriz, eskatzen diote 2027ko aurrekontuan beharrezko diru partida sar dezala, gutxieneko pentsioa LGS garbiarekin parekatzeko.

Elgoibarko herritar guztiak manifestazioan parte hartzera animatu dituzte, pentsio publiko duinen eta bidezkoen alde.

Koska bat gora igota dator Elgoibarko ziklo-krosa

Nazioarteko izaera izango du Besa CX Elgoibar ziklo-krosak



Antolatzaileak eta babesleak, probaren aurkezpenean, astelehenean. ASIER ORBEA

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Jaioberria den proba izan arren, antolatzaileek ez dute denborarik alferrik galdu nahi, eta lehen aldikoa baino handiagoa izango da Besa CX Elgoibar ziklo-krosaren bigarren edizioa, hainbat arrazoirengatik: batetik, nazioarteko izaera izango du, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (UCI) ematen duen C2 kategoria eskuratu baitu; bestetik, aurten sortu duten IparKopa Cx Laboral Kutxa Txapelketarako proba puntuagarria izango da –Elgoibarkoarekin batera, Urduñan eta Muskizen jokatzen dituzten nazioarteko ziklo-kros lasterketek osatuko dute lehen aldiz antolatu duten kopa–; eta, aurrekoez gainera, Gipuzkoako Ziklo-kros Txapelketa ere izango da. Osagarri horiekin, antolatzaileek iaz baino parte hartze handiagoa eta garrantzitsuagoa espero dute bihar Mintxetan jokatuko den probarako.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioko presidente Santi Osorok ere aitortu zien egin duten ahalegina. "Oso fuerte hasi zarete. Iazko probak maila handia eduki zuen, lehendabizikoa izateko, eta bigarrengoa nazioarteko proba izatea zoriontzekoa da, lan asko egin beharra baitago izendapen hori eskuratzeko. Ez da erraza salto hori ematea. Zorionak", esan zien Osorok antolatzaileei joan den astelehenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten aurkezpenean. Gainera, ziklo-krosa guztiaren beharrean dagoen modalitatea dela gogora ekarri zuen Osorok, azkeneko urteetan errepideko txirrindularitzaren aldean "pattal samar" dagoela iritzita. Elgoibarko lasterketa eta halakoak antolatuta, Osorok uste du garai batean zuen lekua berreskuratu dezakeela ziklo-krosak.

400 parte hartzaile

Lasterketako zuzendari tekniko Imanol Garaizabalek jakinarazi du iazkoaren antzerakoa izango dela ibilbidea, baina ñabardura batzuekin; izan ere, UCIk eskatzen duen baldintzetara egokitu behar izan dute. Partaidetzari dagokionez, iazkoa baino handiagoa izango dela aurreratu du Elgoibarko Lagun Taldea txirrindularitza eskolako ordezkariak. Hainbat kategoriatako 400 eta 450 txirrindulari artean biltzea aurreikusten dute. Euskal Herriko txirrindulariez gainera, frantziarrak eta kataluniarrak ere espero dituzte. "Nazioarteko proba izanik, UCI puntuak egongo dira jokoan, eta maila handiko txirrindulari ugari etorriko dira horiek lortzeko asmoan", azaldu du.

Ordutegiak

Jardunaldia 09:30ean hasiko da, master kategorietako lasterketekin. Ondoren, 10:30ean kadeteen txanda izango da, eta 11:15ean, juniorrena. Jarraian, elite eta 23 urtez azpiko emakumezkoen probak jokatuko dira, eta gizonezkoen kategoria horietako lasterketek emango diote amaiera jardunaldiari, 13:20an hasita. Sarrera doakoa izango da.

Aiastiako bolatokian zehaztuko da Euskal Herriko txapelduna, bihar

Asier Orbea ELGOIBAR

Azken tiraldi erabakigarria jokatzea bakarrik falta da Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketari amaiera emateko. Bihar, hilak 21, jokatuko dute, Aiastiako bolatokian. 12:00etan hasiko dute lehia, eta, ondoren, bazkaria eta sari-banaketa ekitaldia egingo dituzte. Sailkapen nagusian Asier Azkarate bolari bergararra dago lehen postuan, eta alde polita du bigarrenarekiko, lau txirloko aldea ateratzen baitio San Migel B taldeko Jon Ibarluzea elgoibartarrari. Azkaratek 19 txirlo bota ditu orain arteko bost tiraldietan, eta 15 ditu Ibarluzeak.



Barinagan jokatu zuten tiraldiko lehen sailkatuak. LAGATAKOA

Bittor Astigarraga onena Barinagan

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko bolalekuan jokatu zuten azken tiraldian Eibarko bolariak nabarmendu ziren: Elgeta taldea ordezkatzen duen Bittor Astigarraga eibartarrak irabazi zuen proba, sei txirlo botata; Asola Berri taldeko Alex Campos sailkatu zen bigarren postuan, 6 txirlorekin; eta Azkoitiko Floreaga taldeko Jose Muñoz sailkatu zen hirugarren, 6 txirlorekin.

Zilarra eta brontzea lortuta agurtu du denboraldia Rodriguezek, Italian

Asier Orbea ELGOIBAR

Munduko Txapelketan lehiatu eta txapeldunorde izan ostean, azken proba batean lehiatzea erabaki zuen Iosu Rodriguez kulturista elgoibartarrak, sasoi-puntua aprobetxatzeko. Italiako Perugia hirian lehiatu zen asteburuan, Ainbb Natural Bodybuilding erakundeak antolatutako Galaxy Show International Final Txapelketan. Bi kategoriatan lehiatu zen, profesional gisa bietan, eta zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu zituen. Mens Pro Fitness Model kategorian eskuratu zuen bigarren postua. Daniel Noe italiarrak lortu zuen urrezko domina, Munduko Txapelketan gertatu zen moduan.



Iosu Rodriguez, Italian. LAGATAKOA

'Gararock udazkenean' zikloko hirugarren kontzertua izango da gaur, Harat taldearena

San Agustinen emango dute kontzertua, 22:00etan; doan izango da sarrera

Ainara Argoitia MENDARO

Gararock udazkenean kontzertu-zikloak erdia egin zuen joan den astean, Maraca Diablo herriko taldearen kontzertuarekin, eta gaur, Harat taldearen txanda izango da. San Agustin aretoan emango dute kontzertua, 22:00etan hasita, eta doan izango da sarrera. Aurreko bi kontzertuetan egin bezala, gaur ere taberna zabalduko dute antolatzaileek, terrazan, 20:00etan.

50 bat lagun elkartu ziren joan den ostiralean Maraca Diablok emandako kontzertuan; gehienak, Mendarokoak bertakoak. Ondarra disko-jartzailea aritu zen kontzerturako giroa jartzen 20:00etatik atzera, eta 22:00ak pasatxoan irten ziren oholtzara Ina Iriondo, Ana Perez, Josu Iriondo eta Rafa Furnier. Berezia izan zen kontzertua, nola musika eskaintzarengatik, hala eskaintza hori aurkezteko erabili zituzten baliabideengatik. Kontzerturako argi gorriz argiztatu zuten, esate baterako, San Agustinen horma-irudia, eta, mendaroarrak izanagatik, harrituta zeuden ikusleetako batzuk, estreinakoz ikusi zutelako San Agustingo harribitxia, gortina beltzaren atzean gordeta egon ohi den mosaikoa. Mendaroko herritarrek estimu handitan izan zuten Angel Bazterretxearen grabazio bat ere jarri zuten kontzertuko une batean, eta ez alferrik, azkeneko diskoan, *Txaskario* izenekoan, badituztelako bi kantu Mendaroko abade izandakoaren omenez sortuak. Hari zor dio diskoak izenburua ere, maiz erabiltzen zuen berba zen-eta *txaskario*.



Harat taldekoak, oholtzan. JON IRAUNDEGI

Rock hipnotikoa

Beratik dator gaurko taldea: Harat. Ibai Gogortzak –gitarra eta ahotsa–, Mattin Arbelaitzek –bateria– eta Iñigo Tellaetxeak –baxua– osatzen dute, eta taldearen izen bereko diskoa dute, duela bi urte argitara eman zutena. Rocka egiten dute.

Lau euskal musikarik osatutako Xahu taldeak jazz kontzertua emango du bihar

Musikarietako bat Josu Salegi debarra da; 21:30ean izango da saioa

A.A. MENDARO

Goi-mailako musika ikasketak Donostiako Musikenen egin zituzten lau lagunek osatzen dute Xahu, lagunartean musika sortzeko gogoak berriro elkartu dituen lau euskal musikarik: Josu Salegi debarrak –saxofoi altua–, Jon Ander Amigok –baxu elektrikoa–, Mikel Nuñezek –pianoa– eta Unai Olabarrik –bateria–; eta kontzertua emango dute bihar Mendaron, San Agustin aretoan, 21:30ean. Sarrerak 15 euroan jarriko dituzte salgai.

Eskarmentu handiko taldea

Lagun artean sortutako proiektua da Xahu, eta konplizitate-giro hori nabari da haien musika ulertzeko eta egiteko moduan, bai eta, jakina, zuzenekoetan ere. Taldekide bakoitzak ekarritako konposizio originalak jazz estandarrekin nahasten dituzte, eta errepertorio "zabal eta intimoa" dute. Hamaika kantuz osatutako diskoa ere badute argitara emanda: *Gero gerokoak*. Talde kontsakratua da. Bilboko Haceria Jazz Club-ean, esaterako, talde egoiliar aritu zen 2018an eta 2019an, eta jazzaldi ezagunetan ere jo izan dute, hala nola Donostiako Heineken Jazzaldian, Debako Jazzez Blain, Munijazzen, La Noche Encendidan, Bilboko JazzOn elkarteak antolatutako jazz zirkuituetan eta Euskal Herriko beste zenbait aretotan. Pandemian, halako eten bat egin zuten, baina indarrak hartuta itzuli dira, eta hala igoko dira San Agustingo oholtzara.



Xahu taldeko lau musikariak. LAGATAKOA

'Gregoria', feminismoa umoretik lantzen duen bakarrizketa, domekan

A.A. MENDARO

Gregoria izeneko bakarrizketa antzeztua egingo du Beatriz Egizabal umoristak Mendaron domekan, hilak 22. San Agustin aretoan izango da, 18:00etan, euskaraz. 12 urtez gorakoei zuzendutako eskaintza dela zehaztu du Udalak. *Jaio ala egin egiten da bat feminista?* Galdera horri erantzungo dio, umoretik. Haren bizitzan feminismoak izan duen eragina aztertuko du, eta ia oharkabean ikasitako kontu asko desikasten egindako ahaleginaz arituko da. Horren harira, haren etxeko emakumeek balio batzuen transmisioan izandako eragina eta askotariko faktoreek harengan izan duten eragina aletuko ditu. *Zer ulertu dut? Zer ez dut ulertu? Zer daukat ulertzeko?* Horiexek dira egingo dituen hiru galdera nagusi.



Gregoria bakarrizketaren kartela. SAREA

'Musikalean', zaindariaren omenez



AINARA ARGOITIA

Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteak sustatutako *Musikalean* ekimenarekin bat egin du aurten ere Mendaroko Ameikutz musika eskolak, Santa Zezilia Egunaren bueltan, eta, hala, asteazkenean, kontzertua eman zuten ikasleek eta irakasleek, Trinitaten. Guztira, 35 bat lagunek parte hartu zuten, eta eliza bete egin zen emanaldirako. Abesbatzakoek hasi zuten jaialdia, eta taldeka aritu ziren ikasleak, *Musikalean* ekimeneko kamiseta koloretsuak jantzita.

OHARRAK

Odol emateak

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, barikua, hilak 20, Mendaroko ikastolan, 17:00etatik 21:00etara. Odola eman nahi dutenek txanda hartu behar dute aurrez, honako telefono zenbaki honetara idatzita: 632 40 37 45. Odol Emaileen Elkarteak odol premiaz ohartarazi du, eta dei berezia egin die gazteei. Bereziki, lau odol mota hauen premia dago: B+, AB+, 0+ eta A+.

Ormolako lehoia, hizketagai

2023ko martxoan Burumendi Espeleologia Taldeko kideek Ormola Bide Ondoko Leizean egindako aurkikuntzari buruzko bi hitzaldi antolatu dituzte datorren asterako. Mutrikun egingo dute bata, azaroaren 23an (astelehena), Zabiel Kultur Etxean, eta Mendaron bestea, azaroaren 25ean (asteazkena), udaletxeko udalbatza-aretoan. 19:00etan izango dira biak.

"Trontza pixka bat alboratu, eta Kirol Herri aizkora txapelketarako prestatuko naiz"

UXUE ANSORREGI HERRI-KIROLARIA

Euskadiko Emakumezkoen Trontza Txapelketa irabazi zuen ostiralean Uxue Ansorregik, Donezteben (Nafarroa), Aurkene Arokarekin bikotea osatuta



Uxue Ansorregi eta Aurkene Aroka, joan den ostiralean, Donezteben. LAGATAKOA

Ainara Argoitia

Aizkora eta trontza, biei ematen die, eta azkeneko urteotan gizentzen doa haren lorpenen zakua. Uxue Ansorregi da (Mendaro, 1995), eta joan den ostiralean Euskadiko Trontza Txapelketa irabazi zuen, Donezteben, Aurkene Aroka berriozartarra lagun hartuta. Herri-kirolen munduan murgildu zuen Florentino Larrañaga herrikideari, Julen Kañamares bikotekideari –herri-kirolaria bera– eta beti ondoan izan dituenei eskaini die txapela, amarengandik eta etxeko besteengandik hasita. "Aitak laguntzen zidan plaza guztietara. Gure amak asko sufritzen zuen ni plazan ikusita, eta ezin izaten zen etorri. 'Ez sufritu', esaten zidan beti, baina duela pare bat urtetik ikusten du zenbat ari naizen gozatzen, eta ikaragarri animatzen nau. Asko eskertzen diot egin behar izan duen lanketa hori".

Bi aldiz Nafarroako txapeldun izan zarete, eta Euskadiko Txapelketa irabazi berri duzue orain; ondo uztartu den bikotea da zuena.

Bai; lagun ona da Aurkene, kirolari handia, indartsua eta abila. Bizitza osoan egin du kirola, eta nabaritzen zaio. Herri-kiroletan hasi aurretik arraunean ibili zen, maila handikoen artean, eta oinarri sendoa zekarren herri-kiroletarako. Oso ondo ulertu dugu elkar, gainera, entrenamenduetan eta bestela, eta ondo moldatzen gara elkarrekin trontzan.

Hamabost ebaki egin zenizkioten 45 ontzako enborrari zortzi minutu eta lau segundoan; nola moldatu zineten?

Ebaki laurden bateko aldea atera genien lehenengotik aurkariei, eta abantaila hura lagungarria izan zitzaigun. Izan ere, bosgarren ebakitik hamabosgarrenera artekoan estu ibili ginen, adar bat irten zitzaigulako, baina, hala ere, ordura arteko abantailari eutsi ahal izan genion, bukaerara arte. Sentsazio oso onarekin jardun genuen lanean; sufritzen, baina, aldi berean, gozatuz. Aurretik joateak hori dauka.

Zer prestaketa egin duzue Euskadiko Txapelketarako?

Hamaika hilabetean buru-belari aritu gara txapelketarako entrenatzen. Asteazkenero eta igandero elkartu gara trontzan egiteko, baina entrenamenduak ez dira trontzan egitera mugatu. Astean sei egunez entrenatu gara, trontzan ez bada, aizkoran, gimnasioan edo mendian, indarra eta kardioa lantzeko. Ondo prestatuta joan ginen txapelketara. 3.000 ebakitik gora egin ditugu entrenamenduetan, eta bada zerbait hori. Tonto-tonto hasi ginen zenbatzen, Julenek [Kañamares] esan zigulako Nafarroako Txapelketa irabazteko 1.000 bat ebaki egin behar genituela, eta Euskadikoa irabazteko, gutxienez 2.000. Entrenatzaile pertsonala ere badaukat nik, prestaketan laguntzeko, bai eta kirol psikologoa ere, urduritasunak eta txapelketa aurreko presioa-eta kontrolatzen ikasteko. Egia esan, egun askotan orduak falta izan zaizkit lana eta entrenamenduak uztartzeko, nahiz eta zortekoa naizen; izan ere, pediatriako erizaina naiz osasun etxe batean, eta 08:00etatik 15:00etara egiten dut lan. Aurkenek, baina, tabernan dihardu lanean, eta lantegi lotuagoa da hori entrenamenduak lotzeko.

> **"Sentsazio oso onarekin jardun genuen lanean; sufritzen, baina, aldi berean, gozatuz"**

Euskadiko Txapelketan erabili duzuen trontzak zeresana ematen jarraitzen du; aurten zelakoa erabili duzue?

Azkeneko astean drama dezentekoa izan dugu horrekin, zein trontzarekin irten erabaki ezinda ibili garelako, eta halako momentu zailetan Julenek asko lagundu digu. Ondo ezagutzen du mundu hau, hark dauka Nafarroako errekorra trontzan, eta teknikoki asko lagundu digu. Tuatahi markako trontza erabili dugu, Julenek erositakoa, trontza amerikarraren eta hemengoaren arteko formatua duena, eta bai, ezusteko handia izan da plazan. Jendeak ez zuen ulertzen trontza amerikarrak izanda zergatik egin genuen haren alde, gehien mozten dutenak trontza amerikarrak direlako, lau hortzeko handiak. Nafarroako Txapelketarako hemengo trontzekin prestatu ginen, derrigorra delako hori Nafarroakoan, eta iaz kostatu egin zitzaigun Euskadikoan amerikarrera egitea. Irabaztetik bi segundora gelditu ginen iaz, baina ez ginen gustura aritu trontza harekin. Aurten hobeto hartu diogu neurria honi, eta gozatu egin dugu.

Zer berezitasun dauka trontza horrek?

Australian egindako trontza da, baina ez da hemen *trontza australiarra* izenarekin ezagutzen dugunaren diseinukoa. Trontza amerikarrak lau hortz ditu urkilen artean, eta honek bi bakarrik. Txikitxoagoa da, baina egokitu zitzaigun enborrerako eta guk moztu genuen erarako bikaina suertatu zitzaigun.

Zer duzu orain begiz jota?

Trontza pixka bat alboratu, eta Kirol Herri zirkuituko aizkora txapelketarako prestatuko naiz orain. Hori da asmoa. Apur bat deskantsatu eta buru-belarri jartzea Xabat Olaizolak [pentatloian ibilitakoa] antolatutako zirkuituko aizkora txapelketarako prestatzea. Azaro hasieran izan nuen horrako lehen kanporaketa, Aian, eta abenduaren 8an izango dut bigarrena [zehaztu gabe dago non], baina, oker handirik ezean, lehenengo kanporaketan egin nuen postuarekin finalerako txartela nahikoa seguru daukat. Bigarren sailkatu nintzen Aian, hirugarren izan zen Irati Astondoarekin puntuetan berdinduta, baina, Astondoari berari irabazi egin nionez, aurretik nago. Finala Asteasun jokatuko da, abenduaren 31n, eta, ezustekorik ezean, Laiene Pikabea, Oihana Fernandez de Barrena eta hirurok sailkatuko gara.

> **"Iraupen luzeko lanetan moldatzen naiz ondoen, segi eta segi egiteko gaitasun hori dudalako"**

Eta, zein jo beharko genuke irabazteko faborito?

Oihana Fernandez de Barrena. Ni dena ematera irtengo naiz, jakina, baina esango nuke, gaur, Oihana beste maila batean dagoela.

Zeintzuk dira zure dohainak?

Erresistentzia. Ni herri-kiroletan gabiltzan emakumezkoetan txikienetakoa naiz, eta ez naiz bereziki indarragatik nabarmentzen, baina esango nuke teknika aldetik nahiko txukun moldatzen naizela. Iraupen luzeko lanetan moldatzen naiz ondoen, segi eta segi egiteko gaitasun hori daukadalako, eta teknika txukun samarra.

Herriko kaleak beteta eta giro ikaragarria San Martin Azokaren 36. aldian

Tokiko produktuak, artisautza eta ohiturak izan ziren protagonista Euskal Birusak antolatutako San Martin Azokaren 36. edizioan. Euskara ardatz izanik, egitarau borobila izan zuten herritarrek



Taloak dira azokako klasikoa. N. NIETO



Eguraldia lagun, jendetza bildu da aurten ere plazan. PEDRO ELIZONDO



Mari Karmen Urkidik omenaldia jaso du, urteetan egindako ekarpenagatik . G. MENDIETA

Garazi Mendieta

Goizeko eguraldiak lagunduta, jendetza bildu zuen joan den zapatuan 36. San Martin Azokak. Euskal Birusak antolatutako hitzorduak herriko kaleak eta azokaren guneak bete zituen goizean zehar, tokiko produktuak, artisautza eta ohiturak protagonista izan zituen egunean. 11:00etan ireki zituzten postuak, eta ordubete geroago hasi ziren ikuskizunak, herrian zehar giroa alaitzeko. Une berezienetako bat Mari Karmen Urkidiri egindako aipamen berezia izan zen; urtez urte baserritar zapiak jartzen egindako lana eta dedikazioa eskertu zizkioten.

Azokako eskaintza postuetatik harago joan zen, eta erakusketak, abereak, jolasak, dantza saioak eta herri-kirolak ere izan ziren. Hala, adin guztietako herritarrek izan zuten azokaz gozatzeko aukera. Horrez gain, Euskal Birusaren ohiko errifen zozketa egin zuten arratsaldean, plazan, jendaurrean. Lehen sariak txerriaren 400 euroko balioa izan du –3.965 zenbakia–; eta bigarrenak, bi lagunentzako landetxe batean asteburuko egonaldia, –3.152 zenbakia–.

Euskaraz bat eginda

Goizeko jardueren artean, Gazte Asanbladak antolatuta, euskararen aldeko brindisa egin zuten, Ermua euskalduna dela erakusteko eta egunerokoan euskaraz egiten jarraitzeko konpromisoa berresteko. Goiza Merkatu Plazan antolatutako ohiko baba-janarekin borobildu zen, eta Txerokiak taldearen musikarekin gozatu zuten. Aurten ere, San Martin Azoka tokiko ekoizpena eta herriko bizitza elkartzeko topagune izan da.



Trikitilariek ere alaitu dituzte herriko kaleak. G. MENDIETA



13 artisauk bete dituzte kaleak. G.M.



Txindurri Dantza Taldeak eman die hasiera goizeko ikuskizunei. G. MENDIETA



Anaitasunaren postua azokan. P. ELIZONDO



Ikastetxeak ere aritu dira. SAN LORENZO



Produktu ugari saldu dituzte. ESKOLABARRI

Argazki irabazlea

Herritarrak plazara baserritar jantziekin jaistera animatzeko argazki-lehiaketa antolatzen du urtero Euskal Birusak. Aurten, 14 argazki aurkeztu dira, eta ardi-mozte saioa irudikatzen duen Cristina Nietorena izan da irabazlea. Errigorako produktuz osatutako otarrea jaso du sari, eta argazkia datorren azokako koadro-bilduman sartuko dute.



Kalabazaren pisu zehatza asmatu dute

Azokako ezinbesteko hitzordua da kalabazaren pisua asmatzeko apustua, eta aurten 343 lagunek hartu dute parte. Horien artean, Asun Sebastianek bete-betean asmatu zuen erantzuna: kalabazak 3,95 kilo pisatu du aurten, eta, hala, irabazleak 240 euroko saria eskuratu du.



ESTIBALITZ GONZALEZ



Ermua euskalduna aldarrikatu du Gazte Asanbladak. G. MENDIETA



Baserritar jantziak soinean, kuadrillaz beteta egon zen plaza egun osoan. G.M.



230 lagun inguru elkartu dira aurten baba-janean. G. MENDIETA

Produkturik onenak saritu dituzte



Fruta eta ortuariak, 1. saria Jose Antonio Fernandez (Ermua)



Fruta eta ortuariak, 2. saria Maria Pilar Mallabia (Mallabia)



Gazta, 1. saria Aitor Urien (Abadiño)



Gazta, 2. saria Patxi Baskaran (Markina-Xemein)



Ogia Luis Mari Osa, Mañe (Mallabia)



Euskal pastela Lourdes Gutierrez (Ermua)



Txilar-eztia Mikel Jauregialzo (Oñati)



Milalore-eztia Igor Merino (Barakaldo)



Sagardoa Jose Antonio Bilbao (Markina-Xemein)



Txakolina Heli Bergliatua (Deba)



Aipamen berezia Ander Urkia (Eibar)



Erakusleiho lehiaketa Karabixa eta Xiripot

Bigarren Kirol Galako sarietarako hautagaien zerrenda osatzen ari dira

Gaur izango da kirolarien eta kluben hautagaitzak aurkezteko azken eguna



Kirol Galaren lehen aldiko saritu guztiak. A. GOMEZ

Ander Gomez

Ermuak Bigarren Kirol Gala ospatuko du urtarrilaren 8an, Ermua Antzokian. Lehen edizioa iazko urte bukaeran egin zuten; oraingoan gala urte hasierara aldatu duten arren, 2026an zehar herriko kirolariek eta erakundeek egindako lana eta lortutako merituak aitortuko dituzte.

Iazko galan, Hodei Rivas gimnastari promesen Argia Saria eman zioten, eta Santiago Fuertes lasterkariari, beteranoen Izarra Saria. Aurtengo maiatzean zendu zen Alberto Lasueni Zuzen Saria eskaini zioten, txirrindularitzan egindako ekarpenagatik eta kirolaren balioak sustatzeko egin zuen lan guztiagatik. Lauko Errotabarriko neskek, oraindik Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzen zeudela, Taldea Saria eskuratu zuten. Nagusien kirol ibilbidea aitortzeko sortutako Urko Saria Francisca Suinagak eta Alfonso Vicentek jaso zuten, eta Gorabide elkarteak, berriz, Aukera Saria, kirolean inklusioa eta aniztasuna sustatzeagatik. Horiez gain, Artarrai Mendi Taldeak aipamen berezia jaso zuen, 50. urteurrenaren harira. Azkenik, 2025eko kirolari onenak izendatzeko Ermua Sariak banatu zituzten: emakumezkoena Anne Erauskin eskubaloi jokalariak jaso zuen, eta gizonezkoena, Miguel Ledesma triatletak.

Sari horiek guztiak banatuko dira berriz ere aurten, eta kirol klubek eta erakundeek euren kirolarien edo beste klub eta diziplina batzuetako kideen hautagaitzak aurkeztu ditzakete. Proposamenak Abiapuntu arreta-bulegoan edo *kirolak@ermua.eus* helbidera mezua bidalita egin daitezke, azalpen labur batekin eta, dagokion kasuan, 2026ko emaitzekin. Gaur, azaroak 20, bukatzen da hautagaitzak aurkezteko epea.



ANNE ERAUSKIN
ESKUBALOILARIA

"Herriko lehen Kirol Galan saritua izateak ilusio handia egin zidan. Ekimen oso polita da kirola ikusgarri egiteko, gure kirolarien ahalegina aitortzeko eta Ermuan dugun guztiaz harro sentitzeko".



MIGUEL LEDESMA
TRIATLETA

"Ekitaldi hau oso-oso aberasgarria iruditzen zait ermuar guztiontzako. Kirolarion bizimodua erakusteko eta gaztetxoentzako eredu izateko aukera bikaina da".

Mallabiko Mendizaleek gonbita egin diote Artarrairi

Mallabiko Mendizaleak ekimena Artarraik apirilean egindako ibilaldi zirkular baten ostean sortu zen. Irailetik hona, irteerak antolatu dituzte ia domekero, eta oraingoan, Ermuko mendi-taldeko kideak gonbidatu dituzte batzera.

Gaztelumendi eta Sarrimendi tontorretara igoko dira domeka honetan, azaroak 22. San Juan de Zengotitan hasiko dute bidea, 09:30ean, eta 12 kilometroko ibilbidea osatuko dute, 520 metroko desnibel positiboarekin. Antolatzaileen arabera, zailtasun ertaineko txangoa da, eta hiru ordu eta erdi inguru iraungo du.

Zengotitatik Okara jaitsiko dira, lehenik, Trabakuako bide zaharretik, eta handik Gaztelumendira igoko dira. Ondoren, Andikoara jaitsiko dira, eta Mari leizetik igarota helduko dira Sarrimendira. Azken tontorrera mendilerroko gandorretik ailegatuko dira. Itzuleran, San Kristobal Txikira joan eta Betzuenera helduko dira. Handik, Oka erreka zeharkatzen duen pistatik Zengotitara bueltatuko dira.

Interesa dutenek 669 02 87 18 zenbakira *whatsapp* mezu bat idatzita eman dezakete izena.

AZAROAREN 25A

Eskaintza zabala iragarri du Udalak A25aren agenda kulturalaren baitan

Ikuskizun eta sentsibilizazio-ekintza ugari egongo dira hilaren bukaerara bitartean

A.G.

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da Azaroaren 25ean, eta egitarau oparoa antolatu du Ermuko Udalak, *Indarkeria matxistak milaka aurpegi ditu* lelopean.

Egitarauko lehen jarduera *Ebakiak, ahotsak, bizitzak, indarkeria matxistaren kontra* erakusketaren irekiera izan da. Indarkeria matxistarekin lotutako hainbat adierazpen jasotzen dituen collageen bilduma da, Marieneako Sormen Topaketako emakumeen taldeak sortu du eta Emakumeen Topalekuko paretetan zintzilikatu dute. Azaroaren 9a ezkero ikusgai dagoen arren, eguazten honetan egin dute aurkezpen ofiziala, eta hilaren 30era arte egongo da ikusgai.

Azaroaren 24an, *Ermua beldur barik* jaialdia egingo dute Ermua Antzokian. LH5-LH6ko eta DBHko ikasleek hartuko dute parte, eta ikastetxeetan egindako lanak aurkeztuko dituzte. Mandarinas Al Sol taldeko kideak arituko dira aurkezle-lanetan –Barakaldoko Hiriko Soinuak Lehiaketako Berdintasunaren Sariaren irabazleak–.

Zinema, antzerkia eta liburuak

Egitarauak antzokian egingo diren bi film-proiekzio eta antzezlan bat ere jasotzen ditu. Azaroaren 21ean eta 22an, *Sacamantecas* filma proiektatuko dute; hilaren 28an eta 29an, berriz, *Ruega por nosotros* filma. Azaroaren 27an, Anduriña Zurutuzak eta Beatriz Egizabalek *Jo!* antzezlana aurkeztuko dute, euskaraz. Sarrerak Lobiano Kulturgunean eskuratu daitezke, 10 euroan.

Horrez gain, indarkeria matxistaren aurkako gida tematikoan gomendatutako liburuen bilduma eskainiko dute Udal Liburutegian eta Emakumearen Topalekuan, gaur hasi eta azaroa bukatu bitartean



Askoa Etxebarrieta Lasheras *La Pulga*. LORALDIA

Ekitaldi instituzionala

Azaroaren 25eko ekitaldi nagusia Orbe Kardinala plazako aterpean egingo dute, 12:00etan hasita. Askoa Etxebarrieta Lasherasek, *La Pulga*-k, flamenkoarekin emango dio hasiera, dantza aldarrikapenerako tresna gisa erabiliz. Ondoren, adierazpen instituzionala irakurriko dute.



Gaztañerre giroan aste hasiera. J. BRAVO



14 kroketa-mota aukeran. J. PORTUGAL



Erdi Aroko giroan, asteburuan. UDALA



Alboka Musika Eskolak martitzenean eman zion hasiera egitarauari. G.M.

Gastronomiak eta herriko ohiturek jarraipena izango dute asteburu honetan

Gaztainak, kroketak eta Galiziako musika izango dira egunotako protagonistak

Garazi Mendieta

San Martin Azokaren ostean, gastronomiak eta herriko ohiturek protagonismoa izaten jarraitu dute herrian. Astelehenean, Gaztañerre ospatu zen, eta aste osoan kroketak dastatzeko aukera izan dute herritarrek, I. Kroketaren Astearen barruan. Gainera, gaurtik igandera Erdi Aroko merkatua izango da Orbe Kardinala plazan, eta bihar Magosto jaia ospatuko dute, gaztaina erreekin eta Galiziako musikarekin.

Gaztañerre Eguneko ohiturari eutsiz

Gaztañerre Eguna ospatzeko, Kaltxango AEK euskaltegiak gaztainak, kantua eta euskararen praktika uztartu zituen astelehen arratsaldean, Berbalagun egitasmoaren barruan. Parte-hartzaileak Zappa eta Arkupe tabernetan elkartu ziren gaztaina erreak dastatzeko, eta, horren ondoren, Plan B tabernan euskaraokean aritu ziren, euskal kantak abestuz. Horrela, urteroko ohiturari eusteaz gain, euskaraz aritzeko eta giro onean elkartzeko aukera eskaini zuten.

Hamalau taberna, hamalau proposamen

Bestalde, I. Kroketaren Astea egiten ari dira azaroaren 16tik 22ra. Lobiano Gastronomia Elkarteak sustatutako ekimenak herriko hamalau ostalaritza-gune batu ditu, eta bakoitzak kroketa-proposamen berezi bat prestatu du, ohiko zaporeak eta konbinazio berritzaileak uztartuz. Pintxo bakoitzak 1,50 euroko prezioa du, eta tabernen ohiko barra-ordutegian dastatu daitezke, igandera arte.

Asteburuko hitzorduak

Gaur, ostirala, Erdi Aroko merkatua egingo dute Orbe Kardinala plazan, 18:00etan hasita. Hitzorduak herriko erdigunea girotuko du asteburuan.

Bihar, zapatua, Magosto jaia ospatuko dute, goizean. 12:00etatik 14:30era gaztaina erreak doan banatuko dituzte herritarren artean. Os Galaicos taldeak Galiziako musika tradizionala joko du. Ondoren, musikarako eta dantzarako tartea izango da, J.C. disko-jartzailearen eta Os Galaicos taldearen eskutik.

Horrela, San Martin Azokaren ostean hasitako jai eta gastronomia giroak jarraipena izango du asteburu honetan ere. Herriko plater eta produktu tradizionalak dastatzeko, ohiturak partekatzeko eta bestelako kulturak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek egunotan.

Musikak eta dantzak bat egin dute Santa Zeziliako ospakizunetan

Alboka Musika Eskolako ikasleak eta Txindurri Dantza Taldea igoko dira antzokiko oholtzara gaur arratsaldean

G. Mendieta

Santa Zezilia ospatzeko ekitaldien barruan, kalejira egin zuten martitzen arratsaldean Alboka Musika Eskolako ikasleek. Herriko kaleak musikaz eta dantzaz bete zituzten, bidean hiru geldialdi eginda eta amaieran plazan azken dantzak eskainita.

Musika eskolatik abiatu ziren musikariak, eta herrian barrena ibili ziren, eta ingurukoen arreta piztu zuten. Geldialdietan, haurrek dantza egiteko aukera izan zuten, eta, plazako azken saioa amaituta, kalejiran itzuli ziren Alboka Musika Eskolara.

Kalejirak giro polita sortu zuen herriko kaleetan, eta musikak eta dantzak jarraipena izan zuten herrian zehar. Bertaratutakoek ikasleen emanaldiak ikusteko aukera izan zuten, ospakizunari amaiera eman aurretik.

Jaialdia, gaur, Antzokian


Santa Zezilia ospatzeko egitarauak gaur izango du jarraipena, Alboka Musika Eskolak eta Txindurri Dantza Taldeak antolatutako jaialdiarekin. 20:30ean hasiko da, Ermua Antzokian, eta musika eskolako ikasleek, Txindurriko dantzariek eta txistulariek hartuko dute parte. Besteak beste, dantzariak, musikariak eta Pispillu abesbatza igoko dira oholtza gainera.

Jaialdiak aukera emango du herriko musika eta dantza taldeek urtean zehar egindako lana oholtza gainean erakusteko.

Sarrerak 4 eurotan daude salgai, Lobiano Kultur Gunean, Kutxabanken webgunean eta kutxazainetan. Gaur bertan, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik ere erosi ahal izango dira sarrerak, Antzokiko leihatilan bertan.















Itxoitera eseri,
eta denborarik ez
egunkaria zabaltze...
HEMEN DA
TOPO
BERRIA
TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean
Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera
+info
topo.eus
euskotren
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KUTXA FUNDAZIOA
Gipuzkoa Ahalbidetuz
Ideia berriak egi bihurtzeko behar duzun laguntza.

KIMU KUKUKA


ZERGATIK EGITEN DIGUTE ERASO BIRUSEK?
BIRUSAK INFEKZIO-ERAGILE OSO TXIKIAK DIRA, ETA MIKROSKOPIO ELEKTRONIKO BATEKIN BAKARRIK IKUS DAITEZKE.
HATXIU!
MATERIAL GENETIKOA: ADN EDO ARN
KAPSIDEA: MATERIAL GENETIKOA BABESTEN DU
LIPIDO-GERUZA: BIRUS BATZUETAN BAKARRIK
BAINA ARAZO BAT DAGO: EZIN DIRA BEREZ UGALDU.
BIRUSEK ZELULA OSTALARI BAT INBADITU, ETA KOPIAK EGITEKO MAKINERIA ERABILI BEHAR DUTE.
1 BIRUSAK ZELULAN SARTZEN DU BERE MATERIAL GENETIKOA.
2 ZELULAK BIRUSAREN ZATIEN MILAKA KOPIA EGITEN DITU.
3 BIRUS BERRIAK ERATZEN DIRA ETA ZELULATIK ATERATZEN DIRA BESTE BATZUK INFEKTATZEKO.
BAINA GAZAKIAK EZ DIRA BIRUSEN OSTALARI BAKARRAK.
ANIMALIA-BIRUSAK: ANIMALIA ZELULAK INFEKTATZEN DITUZTE.
FITOBIRUSAK: LANDAREAK KUTSATZEN DITUZTE.
MIKOBIRUSAK: ONDOAK KUTSATZEN DITUZTE.
BACTERIOFAGOAK: BAKTERIOAK INFEKTATZEN DITUZTE.
BATZUK GAIXOTU EGITEN GAITUZTE, BAINA BESTE BATZUEK MESEDE EGITEN DIGUTE! IKASI GEHIAGO BIRUSEI BURUZ ZIENTZIA KAIERA BLOGEAN.



Nahikariren cumbia tailerreko partaideak, lehen saioan. LOREA ARREGI



Bikotekako frontenis maratoiko finalistak eta txapeldunak. AD MALLABIA FT



Virginia Imaz clown artista. PIKARA MAGAZINE

AZAROAREN 25A

Cumbia tailerra, frontenis maratoia eta clown ikuskizuna, A25aren bueltan

Kirol- eta kultura-ekitaldiek osatu dute Mallabiko A25aren egitaraua

Ander Gomez

Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horren harira, hainbat jarduera antolatu ditu Mallabiko Udalak, herriko eragileekin elkarlanean.

Kirola, feminismoa, arrazakeriaren kontrako lana eta kultura uztartu dituzte egitarauan. Dagoeneko hainbat ekintza egin dituzte, eta datozen egunetan beste bi hitzordu izango dira.

Tailerra eta maratoia

Egitaraua azaroaren 13an hasi zen, Nahikari Emakumeen Elkarteak antolatutako *Feminismoa eta antirrazismoa gorputzetik* tailerrarekin. Kontzejuzarran elkartu ziren, eta bi saiotan –bariku arratsaldean eta domeka goizean– cumbia musika estiloaren historia ezagutzeko parada izan zuten: nola sortu zen gaur egun mundu osora hedatu den mugimendu txiki hura, nondik datorren, hitzak... Pueblatik (Mexiko) datorren eta DJ munduan Hija del Nopal ezizenez ezaguna den Emilia Larrondo soziologo eta aktibista antirrazistak gidatu zituen saiook.

Kirolak ere protagonismo berezia izan zuen asteburuan. Urriko Jaietan jokatu zen AD Mallabia FTk antolatutako gizonezkoen frontenis maratoia, eta orain, emakumezkoena jokatu dute, bikotekako eta banakako modalitateetan. Lehenengoa herriko frontoian jokatu zuten; bigarrena, berriz, eskolako frontoian.

Bikotekako lehian, Ana Garcia salamancarrak eta Maialen Bilbao durangarrak lortu zuten garaipena. Txapelketa Gueñestik etorritako Inge San Cristobal eta Eskoriatzako Laura Saez bikotearen kontrako porrotarekin hasi zuten, 9-8ko emaitzarekin. Finalean berriz ere neurtu zituzten indarrak, eta orduan, joko erasokorragoa erakutsi eta 13-8 irabaztea lortu zuten. Hirugarren postua Andrea Arnaiz eta Leticia Caño burgostarrentzat izan zen. Txapelez eta garaikurrez gain, 400, 300 eta 200 euro banatu ziren saritan.

Banakako modalitatean podiuma ziurtatuta zegoen, hiru erraketista lehiatu baitziren. Horretan ere Bilbao izan zen garaile. Durangarrak Ana Garcia izan zuen aurkari finalean, eta 16-12 irabazi zion. San Cristobal izan zen hirugarren. Hurrenez hurren, 200, 150 eta 100 euro jaso zituzten.

Ikuskizuna eta ekitaldi nagusia

Egitarauak aurrera jarraituko du etzi, hilak 22, Virginia Imaz clownaren *Consumiéndonos* ikuskizunarekin. Kontzejuzarrean izango da, 12:30ean, eta helduentzat da. Umorearen bidez, beharrezkoak ez diren erosketak eta bestelako kontsumo-ohiturak izango ditu hizpide, ikusleak gizarte kontsumistarekiko duten harremanaz hausnartzera gonbidatzeko.

Azaroaren 25ean, eguaztenean, elkarretaratzea egingo dute frontoiko aldapan. Eskolako ikasleek aurrez prestatutako leloak irakurriko dituzte bertan, eta, bukatzeko, *Indarkeriaren kontrako abestia* kantatuko dute. Horrez gain, adierazpen instituzionala ere irakurriko dute.

OSASUN AHOLKUAK

Diabetesa garaiz antzeman eta egunerokoan zaindu



ENARA ARRONATEGUI
FARMAZIALARIA

Azaroaren 14a Diabetesaren Mundu Eguna da, eta aurten, garaiz jardutearen garrantzia azpimarratu du kanpainak. Botikan ere hor hasten da elkarrizketa askotan: "Ondo sentitzen banaiz, zertarako begiratu azukrea?". Galdera horri helduko diogu hileroko lehen osasun-zutabe honetan. Izan ere, diabetesa goiz antzemateak eta eguneroko ohiturek osasuna zaintzen laguntzen dute, sintomak agertu aurretik ere bai.

Diabetesean, glukosa, hau da, odoleko azukrea, gehiegi pilatzen da. Intsulina azukrea gorputzeko zeluletara sartzen eta energia gisa erabiltzen laguntzen duen hormona da, mezulari kimiko bat. 2 motakoan, gorputzak ez dio intsulinari behar bezala erantzuten, eta, gainera, ez du beti behar adina sortzen. 1 motakoan, berriz, gorputzaren defentsek intsulina sortzen duten zelulei egiten diete kalte; ezin da ohitura osasungarriekin prebenitu. Denborarekin, odoleko azukre altuak bihotzari, giltzurrunei, begiei eta nerbioei egin diezaieke kalte.

"Gozokirik jaten ez badut, ez dut diabetesik izango" ustea okerra da. 2 motakoaren arriskuan adinak, familiako aurrekariek eta bizimoduak eragiten dute. Gaixotasuna urteetan sintomarik gabe egon daiteke. Diagnostikorik ez dutenengan, FINDRISC izeneko galdera-sortak 2 motako diabetesa garatzeko arriskua baloratzen laguntzen du. Ez du diagnostikorik ematen: emaitzaren arabera, medikuak erabakiko du odol-analisia egin behar den. Horregatik, ondo sentitzea ez da nahikoa gaixotasuna baztertzeko.

Platera eta edaria zaindu

Bete plateraren erdia barazkiekin, laurdena zereal integralekin edo patatarekin, eta beste laurdena arrainarekin edo arrautzarekin, adibidez. Edan ura edari azukredunen ordez, eta aukeratu fruta osoa zukuaren ordez. Familian ohitura berak partekatzeak aldaketak errazten ditu.

Mugitu egunero, pixkanaka

Helduontzako helburua astean gutxienez 150 minutuz jarduera neurritsua egitea da: adibidez, erritmo bizian ibiltzea, hitz egiteko aukera ematen duen abiaduran. Hasi hamar minutuko ibilaldiekin eta eten eserita ematen dituzun tarte luzeak. Euria ari badu, egin ibilaldi laburrak etxean bertan. Gehitu indarra lantzeko ariketak astean bi egunetan, jarraian egin gabe. Intsulina edo diabetesa tratatzeko zenbait sendagai hartzen badituzu, jarduera berria osasun-taldearekin adostu, azukrea gehiegi jaitsi baitaiteke.

Ez itxaron sintomei

Familian diabetesa badago, gehiegizko pisua baduzu edo haurdunaldian diabetesa izan bazenuen, galdetu osasun-zentroan odol-analisia komeni zaizun. Egarri handia, pixa maiz egitea, ikusmen lausoa edo arrazoirik gabeko argaltzea badituzu, eskatu balorazioa lehenbailehen. Medikuak erabakiko du zer proba behar diren.

Diabetesa baduzu, hartu agindutako tratamendua adierazi bezala eta ez utzi zeure kabuz, neurketak onak izan arren. Ekarri botikara hartzen dituzun sendagaien eta osagarrien zerrenda: erabilera egokia berrikusten eta zalantzak argitzen lagun diezazukegu, osasun-zentroarekin koordinatuta. Begien, giltzurrunen eta oinen jarraipena ere garrantzitsua da; oinetan zauriren bat agertuz gero, kontsultatu. Botika herritarren eskura dagoen lehen osasun-guneetako bat da. Galdetu medikuari edo farmazialariari, zeure kabuz ezer hartu aurretik. Hasi gaur, zeure neurriko urrats batekin: keinu txiki bakoitzak balio du!

Azaroaren 27an egingo den Lokal Friday Azokan piztuko dituzte Gabonetako argiak

Bizikale Merkatari Elkarteak ekarri ditu Gabonetako argiak, eta azoka ere hark egingo du

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Joan den domekan, azaroak 15, hasi ziren Gabonetako argiak jartzen, eta ia denak ipinita daude dagoeneko. Azaroaren 27tik –barikua– aurrera argiztatuko dituzte erdiguneko kaleak, orduantxe egingo baitute argi-piztea.

Hain justu, egun horretan, azaroaren 27an, Bizikale Merkatari Elkarteak Lokal Friday Azoka egingo du, Plaza Zaharreko karpan, eta azoka itxi aurretik piztuko dituzte Gabonetako argiak ofizialki.

Izan ere, urtero moduan, Bizikale Merkatari Elkarteak ekarri ditu argiok; aurten, 6.650 eurorekin. Zubi Nagusian iazko berberak jarri dituzte; gainerako kale-plazetan, berriz, desberdinak jarri dituzte –Bizikale elkarteko komertzioak dauden lekuetan–.



Bizikale elkarteko Raquel Criado, Maite Dominguez eta Ainhoa Mestre, martitzenean. U.M.Z.

Lokal Friday, pintxo eta guzti

Lokal Friday Azokari dagokionez, azaroaren 27an izango da, "tokiko merkataritzari babesa emateko" helburuarekin. 10:00etarako gertu izango dituzte herriko zazpi saltokitako produktuekin osatutako postuak Plaza Zaharreko karpan. Moda, estetika, elikadura –Gabonetakoak tarteko–, jostailuak, jantziak eta osagarriak izango dira aukeran.

Lokal Friday azoka 20:00ak arte izango da zabalik, eta, 18:00etan hasita, bertan prestatutako pintxoak erosteko aukera izango da; Iñarra harategiko Mestre familia arduratuko da horretaz. Txistor-pintxoak egingo dituzte, eta beste motaren batekoak ere bai, ezohikoagoak.

Bestalde, azokan erostera animatzeko eta hori saritzeko, 50 euroko hiru bonu zozketatuko dituzte erosleen artean, azoka itxi aurretik.

Saltokiak

- Triskel
- Likai Estetika Zentroa
- Autoservicio Amparo
- Criado frutategia
- Iratxo gozo-denda
- RKL
- Mabel ile-apaindegia

Pintxoak egiten Iñarra harategikoak ibiliko dira, 18:00etan hasita.

GABONETAKO ARGIAK

6.650

EUROKO AURREKONTUA

Pantailen erabilerari buruzko hitzaldia, azaroaren 23an

Astelehenean, azaroak 23, *Pantailen erabilera arduratsua* izenburua duen hitzaldia izango da, Miren Ros Aiartzaguena familia-hezitzailearen eta Bidelagun proiektuaren sortzailearen eta gidariaren eskutik. Plaentxia Eskolan izango da, baina interesa duen edozein bertara daiteke: ikasleak, gurasoak, familia osoak... Hezkuntza komunitate osoa, antolatzaileen esanetan. 17:30ean hasiko da. Hitzaldia elkarlanean antolatu dute Plaentxi Eskolak, Soraluzeko Jaso Burua taldeak eta Soraluzeko Udalak.

Gai hauek landuko dituzte saio horretan: haurren garapenerako eta osasunerako gakoak; mugikorra eta bideojokoak: aukerak eta arriskuak; sare sozialak eta harremanak; eta etxean erraz aplikatzeko gomendioak.

Sarrera librea eta debaldekoa da, baina azaroaren 20a baino lehen izena eman beharra dago, formulario bat beteta.

Maliko eta Ukrainako bi eskolatako umeei laguntzen diete hari-lan solidarioen bitartez

U.M.Z. SORALUZE

Martitzenean eraman zituzten hari-lan solidarioko jostun-taldeak egin dituen lanak: mantak, txanoak, bufandak... Denetarik egin dute, koloretsuak eta samurrak; asko, umeentzat. Martitzenean, Debako Kooperazio Taldeko kideak izan ziren Tolarekuan, eta han esplikatu zuten azken hiru urteotan Soraluzetik jasotzen duten materialarekin zer egiten duten. Kontatu zutenez, Maliko eskola bati eta Ukrainako Orane inguruetako beste eskola bati laguntzeko saltzen dituzte lanak Debako elkartasun dendan.

25 bat laguneko taldea

Jostun-taldea astean behin elkartzen da Tolarekuan. 25 bat lagun elkartu, eta Ana Ollaren eta Charo Fernandezen gidaritzapean kakorratzez, ehoziriz, puntuz... hari-lanak egiten dituzte. Bergarako hiru jostunen lanak ere jasotzen dituzte emateko.



Hari-lan solidarioko jostun-taldea, martitzenean, Tolarekuan, Debako Kooperazio Taldeko kideekin batera. U.M.Z.















"Odol emaileok ez daukagu elkartasunaren monopolioa, ezta gutxiago ere"

BIXENTE OLAIZOLA 100 BIDER ODOL-EMAILE

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Azaroaren 27an, odol ateratzeak egiteaz aparte, odol emaile oparoenei intsigniak eta diplomak emango dizkiete. Horietako bat da Bixente Olaizola (Soraluze, 1961); odola 100 bider emateagatik jasoko du intsignia. Soraluzeko Odol Emaileen Elkarteko kide ere bada Olaizola.

Ilusioa egiten dizu aitortzak?

Satisfazioa; ez naiz halakoen zalea, baina...

Odola 100 bider eman duten pertsona asko ez daude; zeu noiz hasi zinen?

18 urterekin. Familiako kontua da. Aita eta ama [Vicente Mari eta Miren], biak ziren emaileak. 1964-65ean hasi ziren, Eibarren, eta hara joaten ziren. Ni Soraluzen hasi nintzen, 80ko hamarkadan. Etxean hori bizi izan dugu, eta ilaran hasi ginen Lina, Abel eta hirurok.

Odol emaile zara eta elkartean ere bazaude.

Bai. 1994koa da egin nuen lehen balantzea, Lourdes Altuna lehendakari zela. Deskuidatu egin nintzen, neure burua eskaini nuen, eta, harrezkero, 33 urte daramatzat. Ama ere egon zen delegazioan.



Olaizola, hark berak eginiko olanaren aurrean.

100 bider odola eman ondoren, jarraituko duzu emaile izaten eta elkartean laguntzen?

Odola eman dezaket, osasuna lagun, 70 urtera arte, hori da legea; beraz, segitu egingo dut. Azaroaren 27koarekin, emanda izango dut 104 bider. Elkartean, berriz, segituko dut, baleko lana egin bitartean eta nitaz aspertzen diren arte.

Hainbeste urtean, baduzu anekdotarik?

Nire lehen aldian atzera bota ninduten, tentsioa altu nuelako: 21/14. Hurrengo egunean, amak medikuarenera eraman ninduen. Beste behin, kuadrillako baten amaginarrebari transfusioa egin zioten, eta galdetu nuen ea Eroskiko zein sekziotan topatu zuten odol-poltsa, izoztuetan, freskoetan... Ironia harrapatu zuten; eta, orain bi urte, lagun horrek 25 bider odola ematearren domina jaso zuen.

Hiru lagunek jasoko duzue aitortza azaroaren 27an...

Bai; Rafa Vergelek, 25 bider ematearren; eta Carlos Sanchak, 50 bider ematearren.

Istripuetan-eta ohikoa da odol emateak eskatzea; zuri tokatu zaizu halakorik?

Bai. Kanariar irletan soldaduskan nengoela, Tenerifera eraman ninduten, eta han eman nuen. Kanariarren batek nire odol-poltsa jaso baldin bazuen... euskaltzale eta realzale, bai ala bai!

Noiz edo noiz, jendeak eman izan dizkizu eskerrak, ala?

Guk datozen emaileei eskerrak ematen dizkiegu odola emateaarren, eta euretako hainbatek guri ere bai, nahiz eta gu ez gauden esker on horren zain. Nik beti zera diot: gaixo bat ezin da odolaren zain egon, odolak prest egon behar du beti. Errazagoa da odola eman ahal izatea, odolaren premian egotea baino. Niri osasunak lagundu dit odola 100 bider emateko.

Odol onena, 0 negatiboa?

Ez. Hori unibertsala da, guztiek jaso dezaketena. Baina odol mota guztiak dira balekoak; beraz, guztiak dira positibo!

Soraluzetarrak eskuzabalak gara?

Bai. 2025ean, adibidez, 179 odol-poltsa batzeko erronka ezarri ziguten, eta 229 poltsa batu genituen, eta aurten 200 poltsakoa jarri dute eta 161 poltsa daramatzagu; aurten, justuxeago. Baina hori baino garrantzitsuagoa da odol emaile berriak izatea, lekukoari eusteko erreleboa izatea. Iaz, hamaika emaile berri izan genituen, eta aurten ere beste hamaika emaile berri izan dira. Eta behin etorritako batek bidea ikasten badu, normalean, etortzen segitzen du. Dena den, esan beharra dago elkartasuna askotarikoa dela. Izan daiteke odol emaile, organo emaile, muin emaile, gorpu emaile... edo beste edozein gauzatan parte hartu. Odol emaileok ez daukagu elkartasunaren monopolioa, ezta gutxiago ere.

Besterik nahi baduzu esan...

Gure odola dagoeneko ondua edo erreserba da... oso ona, e? Hala ere, gero eta gutxiago gara odola eman dezakegunok, eta beharrak lehen bestekoak dira. Hortaz, urteko odola, odol gaztea, odol berria behar da. Izan ere... hau marka! Aurrerapen izugarriak munduan, baina odola ordezkatzeko ez gara gauza izan!

Hizkuntzari eta kultura aniztasunari buruzko saio irekia

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak eta Soraluzeko Udalak antolatuta, herriko hizkuntzari eta kultura aniztasunari buruzko saio irekia egingo dute azaroaren 25ean. Auzoko Elkarrizketak izenarekin, 10:15etik 12:15era bitartean izango da topaketa, KLB8an.

"Soraluzeko gaur egungo errealitatetik abiatuta desiragarria izan daitekeen etorkizuna" irudikatuko dute bertaratutakoek. Dinamika parte-hartzaileak egingo dituztela iragarri dute, elkarren ahotsa entzun eta, denen artean, bidezkoagoa eta inklusiboagoa izango den herria eraikitzeko. Antolatzaileek adierazi dutenez, elkarrizketa modu eraginkorrean egiteko, hainbat errealitatetako pertsonak beharko dira: euskararen normalizazio prozesuan interesa dutenak, gizartera aniztasuna eta aberastasuna ekarri dutenak, euskal hiztunak, beste hizkuntza batzuetako hiztunak, euskaratik gertu zein urruti daudenak... Soraluzen bizi edo bertan lan egiten duen edozeinek parte har dezake, eta ekimenean parte hartzeko deialdi irekia egin dute.

Familia-dolare ekologikoa bisitatu eta bertan ekoitzitako olioak dastatzeko irteera

Mikel Izagirre soraluzetarrak Lantziegon duen Erroiz olio-dolarera bisita izango da

Arianne Unamuno SORALUZE

Abenduaren 12an, zapatua, Mikel Izagirre soraluzetarrak Lantziegon (Arabako Errioxa) duen familia-dolare ekologikoa bisitatzera, han ekoizten duten olioa dastatzera, olibondoak ezagutzera eta inguruez gozatzera joateko aukera izango da. Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak antolatu du.

Irteera egokia izango da adin guztientzat. Hain zuzen ere, 09:00etan abiatuko da autobusa, Estaziñoko geltokitik, eta 19:00etan irtengo da Araba aldetik.

Bisita eta dastaketa

Goizean, olibondoetara eta udal errota zaharrera zein dolare berrira bisita egingo dute, eta, horren ondoren, hainbat olio dastatzeko aukera izango da. Bazkalorduan, berriz, nahi duenak jatetxean bertan bazkaltzeko aukera izango du –norberak etxetik bazkaria eraman eta bere kabuz ere bazkaldu ahal izango du–. Arratsaldean, Guardiako bazterrez gozatu, eta nahi duenak ardotxoren bat dastatzeko aukera ere izango du.

Izena emateko epea zabalik dago; horretarako, abenduaren 7a baino lehen formulario bat bete behar da.

Erroizen egingo den bisitarengatik, 13 urtetik gorakoek 25 euro ordainduko dituzte, eta hortik beherakoek dohainik izango dute. Autobuseko joan-etorriagatik, berriz, 10 euro ordaindu beharko dituzte 13 urtetik gorakoek. Jatetxeko bazkariaren prezioa zehaztu gabe dago oraindik.



Mikel Izagirre olibondoetan lanean. PIL-PILEAN

Ehunka urte olibondoek

Erroiz markako olio ekologikoa ekoizten du Mikel Izagirrek, Lantziegon, Dounia El Kouissi bikotekidearekin batera. Izagirrek haurtzaroa Soraluzen eman bazuen ere, aitona-amonen herrian, Lantziegon, oinordetzan jasotako olibondoekin ari da lanean.

Ehunka urte dituzten olibondoak zainduz, urtero kalitate goreneko oliba-olio birjina estra ekoizten dute haien fruituekin, rroniz barietateko olibak erabilita. Hotzean egindako erauzketa, 24 gradutik beherako tratamenduarekin. Dekantazioz, lan eta pazientzia handiz garbitutako olioa.

"Ume batendako aulki gurpildun pertsonalizatua egin dugu, 3D inprimagailuarekin"

ANGEL GARCIA INFORMATIKARIA

Angel Garciak, zaletasunen artean, 3D inprimagailuarekin lan egitea du; apaingarriak eta bestelakoak ditu salgai, eta modu altruistan ere badihardu


Angel Garcia, hark egindako *Kiro* txakurraren eta *Yoshi* dinosauroaren irudiekin. U.M.Z.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Angel Garcia (Soraluze, 1995) Informatikaria da ikasketaz, baina, zaletasunen artean, lan handia egiten du 3D Inprimagailuarekin. Mostratxo bat Gaztañerre Azokan erakutsi zuen, 3D inprimagailuarekin sortutako Gabonetako apaingarriak. Baina hori Garciak egiten duenaren lagin txiki bat besterik ez da. Etxeko tailerrean lau 3D inprimagailu ditu; hiru martxan.

Zelan joan zen artisau moduan izandako estreinaldia?

Ondo. Jendea interesatuta etorri zen ikustera inprimagailuak zelan lan egiten zuen, zenbat gauza egin daitezkeen 3D inprimagailuarekin. Loreontzi adimentsuei buruz harrituta galdetzen zuten, zein materialetakoak ziren.

Denbora daramazu 3D inprimagailuekin egindako gauzak sortzen eta saltzen, ezta?

Serio orain dela urte eta erdi hasi nintzen. Baina hasi, Eibar-Ermua Unin hasi nintzen. Han, hitzaldi bat egin ondoren, inprimagailu bat laga zuten, muntatuta, baina ez zebilen. Hura ikusi, eta martxan jartzea bururatu zitzaidan. Dirua eman zidaten piezak-eta erosteko, eta lagun batekin batera martxan jarri nuen. Gero, lanean hasi nintzenean, baztertu egin nuen inprimagailu kontua. Gainera, halako inprimagailuek leku egonkorra behar dute. Hori lortu nuen oraingo etxera etorri nintzenean. Eta orduan, berriro hasi nintzen. Orain, lau inprimagailu ditut: nik erositakoak eta emazteari azoka batean tokatu zitzaion beste bat.

Guztiak dira desberdinak?

Bi motatakoak daude hemen: batzuetan, kabezalak –buruak– jaitsi egiten dira; eta beste batzuetan, ohea igo eta jaitsi egiten da. Dena den, hau mundu zabala da, mota askotako inprimagailuak daude; besteak beste, erabiltzen duten materialaren araberakoak: PLA –azido polilaktikoa– plastikoa, karbono-zuntza, nylona, silikona modukoa, PETG –botiletakoa– plastikoa... Pentsa... adibidez, badaude 3 D inprimagailuarekin egindako zapatilak. Madril erdialdean dago halakoak saltzen dituen denda bat. Gauza mordoa egin daitezke 3D inprimagailu batekin.

Proiektu berezi batean ere ari zara orain lanean, ezta?

Bai; ume batendako aulki gurpildun bat egin dut, Ayudame 3D –Makegood, nazioartean– proiektuaren baitan. Gipuzkoako bi lagun ari gara horretan. Euskal Encounterren egin genituen pieza batzuk, eta gero, nork bereak egin ditu etxean.

Bukatu duzue?

Bai. Bihar, zapatua, entregatuko dugu, Madrilen.

Zer da Ayudame 3D?

Protesiak, aulki gurpildunak... egiten dira 3Dn, pertsonalizatuak, halakoak erabiltzen dituztenen beharretara egokituta; batez ere, umeentzat. Mundu osoko pertsonek parte har dezakete horretan. Euskadin, oso gutxi ari gara, bi pertsona; Galizian ez dabil inor... Materiala egiten laguntzeaz aparte, laguntza ekonomikoa ere eman daiteke gauzak egiteko, garesti irteten da eta.

"Protesiak, aulki gurpildunak... egiten dira 3D inprimagailuekin, pertsonalizatuak"

"Uni Encounterren talde txiki bat sortuko dugu; '@Angelgar3D' Instagram kontua daukagu"

Zuek egin duzuen aulki gurpildunaren kasuan, adibidez?

Ba, neuk, materialean bakarrik, 100 euro baino gehiago; lan egiten dudan lantegiak [Elesa+Ganter] ere eman dit materiala... Hori guztia, lanorduak eta bidaiak kontatu gabe.

Halako batean parte hartu duzun lehen aldia izan da?

Bai; hau bukatu egingo dugu, eta ea zelan doan kontua. Nik bakarrik egin nahi nuen aulkia; berez, hori posible da, baina konpromiso handia da. Lan handia da, lanorduez kanpo egiten dena, eta ume bat zure lan horren zain dago... Ikusiko dugu. Ondo legoke hemen inguruan elkartzea talderen bat halako gauzak edo bestelako gauzak batera egiteko. Adibidez, Venezuelan lurrikara gertatu zenean, hainbatek egin zituzten ferulak 3Dn. Eta, pandemian, adibidez, askok maskarendako euskarriak egin zituzten... Estatuan jende askok dauka 3D inprimagailua, eta komunitate handia dago. Profesionalki asko erabiltzen dira 3D inprimagailuak, eta gero eta jende gehiagok dauka etxean. 3D inprimagailuen topaketak daude –3D Printer Party, adibidez–, Irunen ere badago 3D inprimagailuak egiten dituen enpresa bat, Tumaker... Geroago eta hedatuago dago hau guztiau. Noski, inprimagailua izatea gero eta errazagoa da, baina gero, egiten diren gauzen kalitatea zaindu beharra dago.


Garcia, bi lanpara eskuetan dituela, eta atzean, inprimagailua. U.M.Z.

Zer egin nahiko zenuke 3D inprimagailuarekin?

Berez, tamaina handiko gauzak egitea gustatzen zait, baina ez dut lekurik horiek gordetzeko.

Oraingoz, denetik duzu eginda, ezta?

Bai. Gauza asko enkarguz egiten ditut. Beste gauza batzuk Iratxo gozo-dendan ditut salgai; dinosauroak eta argazkiak ipintzeko ilargi formadun lanparak, adibidez, oso ondo saltzen dira. Eginda dut auto telegidatu bat, aita bati bere semearen funkoa egin nion, era guztietako lanparak eta apaingarriak ditut, gure ezkontzarako letra erraldoiak egin nituen, nire txakur *Kiro*-ren irudia, *Josey* dinosauroarena, gauzak jartzeko euskarriak, apalak... Gauza asko egin daitezke, inon saltzen ez dituztenak.

Aipatu duzu taldea sortzeko aukera lehen...

Bai; Uni Encounterren talde txiki bat sortuko dugu jarduerak egiteko. Norbaitek nahiko balu parte hartu, Instagrametik idatz dezala: *@Angelgar3D*. Pentsatzen ari gara 3Dn egindako roboten borrokak egitea, adibidez.

Asebeteta laga zituen herritarrak eta bisitariak Gaztañerre Azokak eta Egunak



Ostolaza eta Lizagasar, sagarra jotzen. A.A.



Azokaren ikuspegia, Etxaburuetatik, eguerdian. U.M.Z.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aurten, bisitari eta erosle asko izan ditu Gaztañerre Azokak; halaxe kontatu zuten baserritarrek zein artisauek azokaren amaiera aldera. Animalien presentziarekin jantzita, sagar-jotze, ardi-mozte eta dantza ikuskizunek osatutako eskaintza izan zen, eta hunkituta jaso zituzten opariak Aldazabal eta Goiburu omenduek, eta harro, berriz, sagardogile onenaren txapela Barrenetxe baserrikoek.

Txosnan, azoka bukatu aurretik agortu zen, hain justu, herriko baserritarren sagardoa, eta jatekoz ere hortxe-hortxe ibili ziren.

Baba-jana

Azokakoak eginda, Plaza Zaharreko karpan elkartu ziren ia 200 lagun herri baba-janera eta bazkalosteko kantura, eta gaztelekuan bazkaldu zuten, berriz, azokako protagonistetako hainbatek elkarrekin.



Neska gazte kuadrilla bat, dotore jantzita. U.M.Z.



Gazte kuadrilla bat, jai gosez, azokan. U.M.Z.



San Andres auzoko hainbat baserritar, txosnan. U.M.Z.



Soraluzeko dantza eskolako umeak, dantzan. U.M.Z.



Aldazabal eta Goiburu omenduak. U.M.Z.



Txistulariak eta baserritarrak baba-janean, gaztelekuan. U.M.Z.



Hiru lagun, zubian. U.M.Z.



Plaza Zaharreko karpa, beteta, baba-janean. U.M.Z.

Juanjo Alcelay omenduko dute, haren izena eramango duen kros batekin

Urtarrilaren 10ean egingo dute lasterketa, 9,5 kilometrokoa; dagoeneko zabalik dago izen-ematea



Ander Etxabe eta Oscar Bravo, Deba Xtreme Kirol Taldeko kideak, Juan Jose Alcelayren omenezko krosa iragartzen. N.B.A.

Nerea Bedialauneta Alkorta

Deba Xtreme Kirol Taldearen ekimenez, krosa izango da Deban urtarrilaren 10ean. Oraingo honetan, baina, kirol taldeko kide historiko Juan Jose Alcelayren izena eramango du probak.

Taldeko ordezkari Ander Etxabek azaldu duenez, abuztuaren 28an zendutako taldekide historikoari aitortza berezia egiteko baliatuko dute aukera. Erantsi duenez, helburua da Alcelayren ibilbidea gogora ekarri eta hark urte luzez kirol taldeari egindako ekarpena eta emandako laguntza aitortzea.

Haren esanetan, Alcelay pertsona "ordezkaezina" izan zen taldearentzat, eta hori ekarri nahi dute gogora probarekin. "Guretzat galera handia izan da, eta, Deba Xtremen egindako lan hori guztia eskertzeko, zer hoberik haren izenean proba bat egitea baino", adierazi du. Hasiera batean, Alcelayren omenez triatloi bat antolatzea aztertzen aritu ziren antolatzaileak, baina, Deban halako hitzordu batek eskatuko lituzkeen baliabide ekonomikoak eta antolakuntza-lanak aintzat hartuta, herri krosaren alde egitea erabaki dute, azkenean.

Erabaki horrek, gainera, taldeko kide ohiak berriro elkartzeko balio izan du, etenda baitzuten jarduna. "Talde bezala, berez, Deba Xtreme Kirol Taldearen jarduna etenda genuen. Urtarrileko herri krosa izan zen talde bezala antolatu genuen azken proba. Baina Juanjo hil zenean, haren omenez zerbait egin beharra ikusi genuen, eta horregatik erabaki genuen berriro elkartzea", zehaztu du Etxabek.

Dena den, oraingoz, kirol taldearen jarduna Alcelayren omenezko proba antolatzera mugatuko dela argitu dute: "Hasiera batean, gure asmoa proba hori bakarrik antolatzea da".

"Pisu galanta"

Urretxun jaio arren, Deban bizi zen Alcelay, eta, haren taldekideen hitzetan, "arrasto nabarmena" utzi du bertako kirol arloan.

Gogoratu dutenez, Deba Xtreme Kirol Taldeko sortzaileetako bat izan zen, eta urte luzez presidente karguan aritu zen: "Juanjo guretzat pertsona oso berezia izan da. Taldean pisu galanta izan du. Hura izan zen taldeko bultzatzaile nagusienetako bat, edo nagusia. Etengabe jardun zuen taldeak antolatutako ekimenak sustatzen eta aurrera eramaten. Horien artean daude herri mailan antolatutako triatloiak, krosak eta urte luzez egin izan den San Silvestre lasterketa".



Juan Jose Alcelay, iazko San Silvestre lasterketan aurkezle lanak egiten. N.B.A.

Baina, nabarmendu dutenez, Alcelayren ekarpena ez zen Deba Xtremera mugatu. "Beti lagundu izan du hainbat kiroletan. Gure taldea bultzatzeaz gain, Gipuzkoako Triatloi Federazioan ere jardun zuen lanean. Epaile aritu zen han, eta beste triatloi talde batzuei ere eman zien laguntza. Azkeneko urtean, gainera, Debakayak-eko burua izan da". Haren taldekideek gaineratu dutenez, beti zegoen laguntzeko prest: "Laguntzeko eskatzen zitzaion ekintza guztietan aritzen zen".

Ibilbidea

Antolatzaileek dagoeneko aurreratu dituzte lasterketaren hainbat xehetasun. Krosa 11:30ean abiatuko da, Aldats pilotalekutik, eta helmuga ere bertan egongo da. Ibilbidea 9,5 kilometro inguru luze izango da, nahiz eta oraindik ez duten zehaztu zer bide egingo duten korrikalariek. "Ez dakigu orain arte herri krosetan erabili izan dugun formatu bera errepikatuko dugun ala ibilbidea aldatu egingo dugun". Nolanahi ere, aurtengo probak berritasunen bat izango duela aurreratu dute.

Horrez gain, lasterketa egunean bertan, estimu handian zuten kideari omenaldiren bat egiteko asmoa ere badute, baina oraindik guztia zehazteke dutela aipatu dute. "Haren omenez antolatu dugun krosa denez, zerbait berezia egin nahiko genuke. Garaikur bereziren bat edo beste egitea pentsatzen ari gara".

250 lagunentzako muga

Lasterketan parte hartzeko, 16 urte beteta izan beharko dituzte korrikalariek. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago, eta interesa dutenek *herrikrosa.eus* atarian dute horretarako aukera, 16 euroren truke; bide horretatik izena eman nahi dutenek bezperara arte izango dute zabalik aukera. Ohartarazi dutenez, lasterketaren egunean bertan ere izango da horretarako aukera, baina, kasu horretan, 20 euro ordaindu beharko dira izena emateko.

Antolatzaileek 250 laguneko gehieneko muga ezarri dute, eta kopuru horretara iristea espero dute, Alcelay zenari "merezi duen" agurra emateko: "Gustatuko litzaiguke, Juanjoren omenez, ahalik eta partaidetza zabalena izatea, hari azken agur bat emateko. Haren omenez antolatutako krosa herritik eta herriarentzako antolatutako gauza xume bat izatea espero dugu, eta, bide batez, agur bero bat ematea gure lagun eta kide bultzatzaile izan den Juanjori".

Boluntarioen laguntza

Korrikalarien parte hartzeaz gain, hitzordua antolatzeko boluntarioen laguntza ere beharko dute. Horregatik, herritarrak ekimenaren parte izatera gonbidatu dituzte; korrikalari gisa ez ezik, antolakuntzan ere laguntzeko. "Herria eta herritarrak proban inplikatzea nahiko genuke. Juanjori egin nahi diogun agur honen parte izatea nahi dugu jendea, bai proban parte hartzen edo, bestela, guri laguntzen".

Deba Xtremen sortzaileetako bat izan zen Alcelay, eta urte luzez izan zen taldeko presidente

16 urte beteta dituzten korrikalariek parte hartu ahal izango dute krosean

Elaia Oiartzabalek eta Maite Mugartegik bereganatu dute Gipuzkoako txapela

Klub bereko Amaia Aizpururi eta Maialen Rosari 30-26 irabazi zieten

Nerea Bedialauneta Alkorta

Elaia Oiartzabal debarra eta Maite Mugartegi mutrikuarra dira Gipuzkoako Binakako Gomazko Paleta Txapelketako emakumezkoen bigarren mailako aurtengo txapeldunak. Joan den larunbatean Aldats pilotalekuan jokatu zen finalean, 30-26 gailendu zitzaizkien Maialen Rosa debarrari eta Amaia Aizpuru azkoitiarrari.

Neurketa gogor eta estua jokatu zuten Iruleak Emakume Pilotariak klubeko bi bikoteek, ia ordu eta erdikoa, eta tanto luzeak eta berdinketak izan ziren nagusi. 21. tantoan izan zen azkena, eta, une hartatik aurrera, Oiartzabalek eta Mugartegik –urdinez– hartu zuten partidaren agintea. Pixkanaka aldea handituz joan ziren, eta, gorriak markagailuari buelta ematen saiatu baziren ere, azkenean, 30-26 amaitu zen neurketa, urdinen alde.



Finalistak, Alazne Txurruka alkatearekin eta Ainhoa Urbieta zinegotziarekin. N.B.A.

Herriko txapelketaren finala

Iruleakeko ordezkariek gaineratu dutenez, guztia prest dago bihar goizean Aldats pilotalekuan jokatuko den Nesken XIV. Pala Txapelketaren finalerako –XI. Maite Etxeberria Oroimenezkoa–. Jakinarazi dutenez, aurtengo hitzorduak ez du ohiko egitura izango.

Hain zuzen ere, lehen mailako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko norgehiagokarekin ekingo diote jardunaldiari. 09:30ean hasita, Iratxe Astigarraga-Yoli Mateos eta Leyre Paredes-Karmele Martinez bikoteen arteko partida izango da. Bigarren mailakoa, berriz, herenegun jokatu zuten; Onintza C. Sukia eta Oihana Lazkano nagusitu ziren, Maider Urbieta eta Maitane Oliden mendean hartuta (22-21).

Ostean, lau bikote finalistei eta epaileei agurra dantzatuko diete, eta, jarraian, bigarren mailako finala jokatuko da. Marilu Albizu-Monika Salegi bikoteak Sheila Gonçalves-Amaia Zinkunegi izango du aurkari; beraz, maila horretan, txapela Deban geratuko dela ziurtatuta dago. Lehen mailako finalean, berriz, Maialen eta Naroa Rosa ahizpa debarrak Maite Mugartegi-Eva Ibarrola mutrikuarren aurka arituko dira.

NIRE USTEZ

Arazo kolektiboa, norberaren zama



ITSASO ARAMENDI

Lagun batek leporatu zidan beti gai beren inguruan idazten nuela, baina emakume, ama eta langile naizen aldetik, bada, bai, oraingoan ere lehengo lepotik burua.

Historikoki, emakumeok hartu dugu geure gain zaintzaren ardura: seme-alabak hazi, etxea zaindu eta besteen beharrak gureen aurretik jarri ditugu, lan ikusezin eta ordaindu gabearen bidez. Gaur egun, ordea, lan-merkatuan ere bete-betean egotea eskatzen zaigu, zaintza-erantzukizunak desagertu izan balira bezala. Eta hor hasten da ezinezko oreka. Lanean ari gara, seme-alabei behar adina denbora eskaintzen ez diegulako errudun sentituz; haiek zaintzen ari gara, lanean huts egiten ari garen sentipenarekin. Denera iristen saiatzen gara, baina ez gara iristen. Eta, gainera, arazoa geu ote garen galdetzen diogu geure buruari.

Gure lan-bizitza zaintza-erantzukizunik ez bagenu bezala antolatu behar dugu, haurrak haztea, berriz, lanetik kanpo, denbora librean eta kosturik gabe egin daitekeela ulertarazi zaigu. Horrela, egiturazkoa eta kolektiboa den arazo baten zama familia bakoitzaren bizkar uzten da.

Kontziliazioak lana bizitzaren beharretara egokitzea eskatzen du, ez bizitza lanaren eskakizunen arabera antolatzea. Zaintza ez da familia bakoitzak egin beharreko malabar-ariketa, jendarte osoaren erantzukizuna da.

Ez genuke gure seme-alabak zaintzeko denboraren eta laneko erantzukizunak betetzearen artean aukeratu behar; sistemak ez gintuzke hautu ezinezko horretara behartu behar.

Sistemak seme-alabarik ez bagenu bezala lan egitea eta lanik ez bagenu bezala haiek haztea eskatzen digu. Eta hori ezinezkoa da.

(Ume bat titian eta besteak lokartu berri idatzitako zutabea)

Otogoien aldera irteera egingo du Burdin Kurutzek ikasleekin igandean

I.A.

Etziko, azaroak 22, iragarri du Debako Burdin Kurutz Mendi Taldeak ikasleekin eta beren gurasoekin hilero egin ohi duen mendi irteera. Otogoien-Ganalto-Otogoien ibilbide zirkularra egiteko aukera izango dute, oraingo honetan, partaideek.

Egun osoko irteera izango da; 08:30ean elkartuko dira, autobus geltokian, eta handik autobusez abiatuko dira irteera-puntura. Behin hara iritsita, 11 kilometroko bidea egingo dute, 380 metroko desnibel positiboarekin eta negatiboarekin.

Ikasleei zuzendutako hurrengo txangoa urtarrilaren 17an izango da: Arantzazu-Urbia (Enaitz)-Arantzazu ibilbide zirkularra egitea proposatu du mendi taldeak.



Urrian Kalamuara eta inguruetara egin zuten irteerako argazki bat. BURDIN KURUTZ

Egun osoko egitaraua ondu du Gazte Asanbladak biharko ospakizunerako

I.A.

Debako Gazte Asanbladak azaroaren 6an ekin zien 26. urtemuga ospatzeko ekitaldiei, eta egitaraua ez da amaituko hilaren 27ra arte, baina biharko –hilak 21– iragarri dute ospakizun nagusia, eguerditik goizaldera arte iraungo duen ekintza-sortarekin. Eta, asanbladako lehengo eta egungo kideei ez ezik, gainontzeko herritarrei ere egin diete festara batzeko gonbidapena.

Hasteko, 13:00etan karro-poteoa izango da eta 15:30ean herri bazkaria egingo dute gaztetxean. Gazte Asanbladako kideek jakinarazi dutenez, hamarnaka lagun batuko dira otordura.

Bazkalostea girotzeko, halaber, bingo musikatua antolatu dute, eta 19:00etan Latuna Bando Txaranga irtengo da kalera. Gau partean, berriz, musika izango da nagusi gaztetxean: 22:00etan Zerotan taldearen erromeria izango da, gauerdian Txamakos taldea igoko da agertokira eta, amaitzeko, 02:00etan DJ Erratza arduratuko da musika jartzeaz. Tonbola ere izango da gau osoan.

Azken ekintzak, gaur zortzi

Gorrotoz suntsitu, ilusioz eraiki! lelopean ondutako egitaraua azaroaren 27an itxiko dute. 17:00etan hasita, haurrei eta familiei zuzendutako txotxongilo tailerra, ipuin kontaketa eta txokolate-jana egingo dituzte gaztetxean.



Azaroaren 6an egindako bertso afaria. DGA

Martxan da tokiko ekonomia sustatzeko 'Erosi Deban, bizi Deban' bonu kanpaina

50 euroko bonuak 35 euroan eros ditzakete herritarrek, Turismo Bulegoan

Izaro Aulestiarte

Joan den asteburuaz geroztik, eta agortu artean, salgai daude *Erosi Deban, bizi Deban* kanpainako erosketa-bonuak, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetan kontsumoa sustatzeko helburuarekin. Debako Udalak jakinarazi duenez, guztira, 50 euroko balioa duten 665 bonu banatuko dituzte oraingoan, eta herritarrek 35 euroan erosi ahal izango dituzte, Turismo Bulegoan. Kanpainarekin bat egin duten establezimenduetan soilik erabili ahal izango dira bonuak, abenduaren 15era bitartean.



Ekimenarekin bat egin duten zenbait merkatari eta udal ordezkariak, plazan. DEBAKO UDALA

Bonu bat pertsonako

Deban eta Urazamendik auzoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek eros ditzakete bonuak; horretarako, nortasun agiria aurkeztu beharko dute. Udalak ohartarazi du, hori bai, pertsona bakoitzak bonu bakarra erosteko aukera daukala. Bonuak agortzen direnean emango dute amaitutzat salmenta.

Bonu bakoitzak zazpi erosketa-txartel izango ditu: 10 euroko hiru eta 5 euroko lau, hain zuzen. Erosketaren zenbatekoa erabilitako txartelaren balioa baino txikiagoa bada, merkatariek ez dute aldea eskudirutan itzuliko. Eta, azaldu dutenez, erosketaren zenbatekoa 50 eurotik gorakoa baldin bada, aldea ezin izango da beste bonu batekin ordaindu.

2026ko abenduaren 15era arte erabili ahal izango dira bonuak; behin epe hori igarota, erabili gabeko txartelek balioa galduko dute, eta ezingo dira itzuli.

10.000 euroko ekarpena

Udal Gobernuak adierazi du orotara 10.000 euro bideratuko dituela erosketa-bonuak finantzatzera, bonu bakoitzeko 15 euroko ekarpena eginez. Laburbildu duenez, helburu argia du *Erosi Deban, bizi Deban* kanpainak: "Tokiko ekonomia indartzea, herriko establezimenduetan erosketak egiteko ohitura bultzatzea eta familien ekonomiari laguntzea".

25 establezimendu

Azaroaren 7an zabaldu zuen Udalak aurtengo kanpainarekin bat egiteko epea. Parte hartzeko interesa zuten saltokiek eskaera aurkeztu behar izan zuten, eta hilaren 13an ezagutarazi zuten partaideen zerrenda; merkataritza, ostalaritza, elikadura eta zerbitzu sektoreetako 25 establezimendu daude tartean.

Bi aste iraungo dute segurtasun-baranda berriak jartzeko lanek



Hondartza kaleko lanak. N.B.A.

Debako Udalak asteon hasi ditu udalerriko bi gunetan segurtasun-baranda berriak jartzeko lanak; Hondartza kalean –16. eta 23. zenbakien artean– eta pasealeku estaliko espaloiaren hasieran dagoen bihurgunean dihardute lanean. Azaldu dutenez, lanek bi aste inguru iraungo dute, eta arriskuak murriztea eta oinezkoen segurtasuna hobetzea dute helburu.

Prentsa-ohar bidez zehaztu dute Construcciones Lasuen SA enpresak egingo dituela lanak, 17.970,19 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.

Santa Zezilia Eguna ospatzeko emanaldiek girotuko dute asteburua

I.A.

Etzi, azaroak 22, Santa Zezilia Eguna da, musikarien zaindariaren eguna, eta herriko talde ugari hasiak dira jadanik hura ospatzeko kultur ekitaldiekin. Debako Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasleek, adibidez, kalejira egin zuten atzo arratsaldean, baita merienda ere, ondoren, musika eskolan.

Gainontzeko emanaldiak, dena den, astebururako iragarri dituzte. Bihar, larunbatez, eskaintza bikoitza izango da aukeran, herritarren gozamenerako: batetik, 12:30ean, Debako Musika Bandaren urteroko kontzertua hartuko du Santa Maria elizako klaustroak –ohi legez, aurrez herrian ibiliko dira musikariak, kalejira txiki bat egingo baitute, giroa berotze aldera–; bestetik, Kalean Kantuz taldeko kideak iluntzean irtengo dira kalera, 19:30ean.

Etzi, gehiago

Igandean, aldiz, goiz-eguerdi partean egingo dituzte Santa Zezilia ospatzeko ekitaldiak. Hasteko, txistu doinuak eta Banda Gaztea izango dira protagonistak, 11:00 aldera kalejiran irteteko asmoa baitute, eta, ondoren, Aitzuri Abesbatzaren txanda izango da; kalerik kale ariko da eguerdian.



Debako Musika Banda, iazko kontzertuan, klaustroan. INMA ALBERDI



















AZAROAREN 25A

Indarkeria matxistaren kontrako aldarriak hartuko du kalea, Azaroaren 25aren harira

Debako Udalak eta Sare Feministak mobilizatzera deitu dituzte herritarrak

I. Aulestiarte

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da Azaroaren 25a, eta horren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Debako Udalak eta Debako Sare Feministak, bereizita, datozen egunotarako.

Udal Gobernuak ondutako programa herenegun abiatu zen, hilak 18, *Harreman toxikoa ala indarkeriazko harremana?* izenburuko hitzaldiarekin, Kultur Elkartean. Eta gaurko, hilak 20, iragarria zuten bigarren jarduera –*Artea, berdintasuna eta tratu onen aldeko tailerra*, 8-10 urte bitarteko umeei zuzenduta–, baina saioa bertan behera geratu dela ohartarazi dute, ez baitute partaideen taldea osatzeko behar adina izen-emate jaso.

Egitarauari amaiera emateko, hilaren 25ean bertan, asteazkenez, 19:00etan, elkarretaratzea egingo dute Foruen plazan, ohi legez. Mobilizaziorako deialdiaren bidez, "indarkeria matxistaren aurkako gaitzespen kolektiboa ikusarazi eta Debak berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin duen konpromisoa berretsi" nahi dutela azpimarratu du Udal Gobernuak.



Azaroaren 25eko elkarretaratzea, iaz, Foruen plazan. IZARO AULESTIARTE

Adierazpen instituzionala

Azaroaren 25aren harira antolatu dituen ekintzen berri emateko, herritar guztiek "indarkeriarik gabeko bizitza askeak" izateko duten eskubidea aldarrikatu du Udalak, baita indarkeria matxista desagerraraztea erakundeen zein herritarren erantzukizuna dela gogorarazi ere.

Adierazpen instituzional baten bitartez, "Deba seguruagoa eta parekideagoa eraikitzeko lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi" du udalbatzak.

Hiru jarduera-ildo nagusi jasotzen ditu adierazpen horrek: indarkeria matxistaren prebentzioa indartzea, hezkidetza-programaren eta sentsibilizazio-ekintzen bidez; emakumeei arreta hobetzeko erakunde arteko mahaiaren bitartez erantzun integral eta koordinatua bermatzea; eta espazio publiko, aisialdi-gune eta udal-jarduera seguru eta parekideak sustatzea, besteak beste, jaietako gune moreen bidez.

Era berean, azpimarratu du "indarkeria matxistarik gabeko herria eraikitzea ez dela administrazio publikoen ardura hutsa, baizik eta jendarte osoaren inplikazio aktiboa eskatzen duen erronka kolektiboa". Eta, ildo horretan, herritar guztiei dei egin die emakumeen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurrean jarrera aktiboa eta konprometitua izan dezaten. Bide batez, Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei.

'Sarea gara' ekimena

Debako Sare Feministak, berriz, *Sarea gara* izeneko ekimena iragarri du Azaroaren 25erako. 18:30ean izango da plaza hartzea, *Indarkeria matxistaren aurrean saretze feminista* lelopean.

Xehetasun handirik ez dute eman nahi izan antolatzaileek, baina aurreratu dute, hori bai, "denentzako" ekimen bat izango dela, "indarkeria matxistari aurre egin nahi dion orori zuzendua". Hortaz, herritar guzti-guztiei egin diete animatzeko eta Foruen plazara bertaratzeko dei.

Itziarren, ekitaldirik ez aurten

Bestalde, tokiko eragileek jakinarazi dutenez, aurten ez dute Azaroaren 25aren bueltako mobilizaziorik edota ekitaldirik egingo Itziarren.

Silvia Cisnerosen hitzaldia, hilaren 24an, Kultur Elkartean

Asteartean, hilak 24, Silvia Cisneros mediku, ikerlari eta osasun digitalean adituaren *Haur eta nerabeen neurogarapen egokirako gakoak* hitzaldia izango da Kultur Elkartean, 17:30ean; haurren eta gazteen ongizate digitala ardatz hartuta, Altxa Burua Deba-Itziar taldeak azarorako antolatutako hitzaldi-zikloaren baitan egingo da saioa.

Debako eta Itziarko ikastetxeetan garatzen ari diren Doitu formazio programarekin lotuta daude Altxa Buruaren hitzaldiak, eskoletan lantzen dihardutenaren "osagarri" baitira, hain zuzen. Egitaraua azaroaren 3an hasi zuten, Telmo Lazkano gonbidatuarekin, eta abenduaren 15ean egingo dute azken solasaldia, 18:00etan, Kultur Elkartean: hezkuntza digitalean aditu Edurne Emazabel ariko da agertokian, *Familiak digitalki ahalduntzen; askatasunez hezi aro digitalean* gaia hizpide hartuta.

Pablo Ortiz de Zaratek Deban aurkeztuko du 'El arteSano' liburua

Azaroaren 26an, Pablo Ortiz de Zarate Debako Kultur Elkartean izango da, *El arteSano. Como mirar el arte para comprender tus emociones* liburua aurkezten. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta galdera-erantzunetarako tartea izango da aurkezpenaren ondorengo solasaldian.

Kazetari, arte-hezitzaile eta kultura-dibulgatzailea da Ortiz de Zarate, artearen kontenplazioaren eta osasun emozionalaren arteko loturan espezializatua; gaur egun, SER irrati kateko *Hoy por hoy* saioko *El artesano* atala gidatzen du, besteak beste.

Kontzertua eta bakarrizketa

Besterik ere bada Kultur Elkarteak iragarri duen agendan: gaur, adibidez, Xabi Aburruzaga Trio taldearen kontzertua izango da, 20:00etan; ordu berean, baina hilaren 27an, Manex Astigarragak *Margolari* umorezko bakarrizketa-saioa egingo du.

'Etxe arrotz hau' ipuinbildumaz ariko dira Irakurketa Klubean

Ostolaza Udal Liburutegiko Irakurketa Klubeko kideak ostegunean, azaroak 26, elkartuko dira, 19:00etan, eta Olatz Mitxelenaren *Etxe arrotz hau* liburua izango dute hizpide; Asier Serranok gidatuko du saioa.

Parte hartzeko, aurrez eman behar da izena, 697 44 40 74 telefonora deituta edo *ostolaza@deba.eus* helbidera idatzita.


















IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez edo ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut; tartean, atariak. 652 02 04 64

Elgoibar. Ile-apaintzailea naiz. Etxez etxe egingo nuke lan. Emakumezkoentzako zein gizonezkoentzako zerbitzua ematen dut. 602 37 95 75

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez edo arratsaldez lan egingo nuke. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. 660 51 17 81 / 943 74 23 30

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egingo nuke: astegunetan, asteburuetan, ospitalean zein opor egunetan. 631 42 56 86

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. Titulu soziosanitarioa daukat. 624 34 34 51

BESTELAKOAK

Deba. Simaurra hartuko nuke debalde Deban edo inguruan. 688 63 18 03

GARAJEAK

Eibar. Furgoneta gordetzeko garaje itxia hartuko nuke errentan Debabarrenean. Garajeak gutxienez altueran 3 metro eta luzeran 6,5 metro izan behar ditu. 667 95 73 16

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus


www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.


ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!

Galle-Tiak® FABRIK



ELGOIBAR
Beñat
Zorionak, Beñat, azaroaren 14an 8 urte bete zenituelako. Patxo potolo bat, familia guztiaren partez.



MALLABIA
Maialen
Zorionak, Maialen! Gaur, 10 urte! Oso ondo pasa zure eguna! Patxo handi bat, etxekoen partez.




MENDARO
Xuban
Zorionak, Xuban! Igandean 2 urte beteko dituzu. Muxu handi bat, mutil handi, etxeko guztien partez, eta, bereziki, Juleren partez.



ELGOIBAR
Danel
Zorionak, Danel! Primeran pasatu genuen zure egunean. Pila bat maite zaitugu!



ELGOIBAR
Edgar
Magiaz beteriko hiru urte zure ondoan, Edgar. Zorionak, Enrique eta Grace aitona-amonen partez.



ELGOIBAR
Nile
Zorionak, Nile, astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Etxeko guztion, eta, bereziki, ahizpa Noraren partez. Muxu bat.



ELGOIBAR
Inge
Zorionak, Inge! Igandean 7 urte! Primeran ospatuko dugu!



SORALUZE
Oinatze
Zorionak, politori! Etxeko guztien eta lagunen partetik.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz *zorionagurrak@barrena.eus*. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik


Galle-Tiak® FABRIK

Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: BEÑAT GIL AGIRREGOMEZKORTA

Joan den asteko irabazleak!



ZOZKETA

Parte hartu:
barrena.eus/zozketak

Barrena
BATZEN GAITUENA

Ekitaldi hauetarako 2 sarrera bikoitz

BAKARRIZKETA
MARGOLARI
Azaroaren 27an, 20:00etan
Debako Kultur Elkartean



MUSIKA
Aitor GOROSABEL eta Xabi BASTIDA
Abenduaren 17an, 19:30ean
Debako Kultur Elkartean



ANTZERKIA
KIMU (Marie de Jongh)
Abenduaren 20an, 18:00etan
Soraluzeko Herriko Antzokian



ELGOIBAR

Trini Romero Matamoros

Trinidad Fernandez Sanchezen alarguna.
Azaroaren 14an hil zen, 97 urte zituela.

Borrokalari nekaezina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.

Zure familia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.



ELGOIBAR



ELGOIBAR



XXIII. urteurrena

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

Edur zurittan hazittako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.

Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasian aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.

Zure familia eta lagunak



Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - 605 706 086 (24 orduz)
eskelak@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA
943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203
Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / *barrena@barrena.eus*

OSTIRALA 20

- **ELGOIBAR Kalejira** Santa Zezilia Egunaren harira, kalejira egingo dute Elgoibar Ikastolako ikasleek, Kalegoen plazatik ikastolaraino. Eguraldiaren arabera, aldaketak egon daitezke. Kalegoen plazan, 08:30ean.
- **MENDARO Odol ateratzeak** Txanda hartzeko: Whatsappez: 632 40 37 95. Ikastolan, 17:00etatik 21:00etara.
- **MENDARO: 'Bingo!'** Ludotekan, 17:00etan.
- **ERMUA 'Family reading time' haurrentzako irakurketa klub hirueleduna** 0 eta 3 urte arteko haurrentzat. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 17:15ean.
- **MENDARO 'Martxoak 25 zergatik?'** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ITZIAR 'Go!azen 13' telesailaren denboraldi berriko lehen atalaren emanaldia** Burugorri Gaineko lehen solairuan, 18:00etan.
- **ERMUA Erdi Aroko merkatua** Orbe Kardinala plazan, 18:00etan.
- **ERMUA Haurrentzako irakurketa kluba: 'Entre libros'** 4 eta 8 urte arteko haurrentzat. Gazteleraz. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 18:15ean.
- **MALLABIA Pala partidak** Mallabiko pilotalekuan, 19:00etan.
- **DEBA Xabi Aburruzaga Trioren kontzertua** Eriz Perez, Xabi Aburruzaga eta Aitor Uribarri ariko dira agertokian. Sarrerak, 5 euroan, esteka honetan: *labur.eus/aburruzagakulturekin.* Debako Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **ERMUA Santa Zezilia Jaialdia** Musikarien zaindariaren omenez egin ohi den jaialdia, Alboka Musika Eskolako ikasleek eta Txindurri taldeko dantzariek eskainia. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **MENDARO 'Gararock udazkenean': Harat taldearen kontzertua** Sarrera, doan. San Agustin kulturgunean, 22:00etan.

LARUNBATA 21

- **SORALUZE Zuhaitz landaketa Askabeittin** Soraluzeko Baso Biziak Elkarteak eta Lurgaia fundazioak Gaztelupeko Hotsak-ekin eta Soraluzeko Udalarekin elkarlanean antolatuta. San Andres auzoan, 09:00etan.
- **ELGOIBAR Ziklo-krosa** CX BESA Lagun Taldeak antolatuta. Mintxetan, 09:00etan.
- **DEBA Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketa –3. eta 4. postuak, 1. maila–; eta finalak** Aldats pilotalekuan, 09:30ean.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 10:00etan.
- **SORALUZE Ahalduntze Eskola: 'Emakumeen* korrika taldea'** Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazken eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Estaziñon, 10:30ean.
- **ERMUA Magostos** Gaztainen banaketa, musikarekin girotuta. Galiziako Kultur Zentroan, 11:00etan.
- **DEBA Bandaren Santa Zezilia Eguneko kontzertua** Santa Maria elizako klaustroan, 12:30ean.
- **ELGOIBAR Udal Musika Banda** 10:00etan hasita, kalejira egingo dute. 13:00etan, San Bartolome parrokian, Santa Zezilia Eguneko kontzertu berezia.
- **ELGOIBAR Eskola kirola: ziklo-krosa** CX Besa Lagun Taldeak eta Elgoibarko Eskola Kirola elkarteak antolatuta. Mintxetan, 16:00etan.
- **MALLABIA Kirol arrastoen bila –txikien programa–** Zapatuero ekimenaren baitan. Mallabiko frontoian, 16:00etatik 19:00etara.
- **MALLABIA Kirol arrastoen bila –nagusien programa–** Zapatuero ekimenaren baitan. Mallabiko frontoian, 16:00etatik 19:00etara.
- **ERMUA Antzerkia: 'Bidutzi'** Sarrera, 4 euro. Ermua Antzokian, 17:00etan.
- **MENDARO: Mimika erronka** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **DEBA: Kalean Kantuz taldearen kantaldia** Santa Zezilia Egunaren baitan antolatuta. Herriko hainbat gunetan, 19:30ean.
- **MENDARO: Mendaroko Jazz Egunak: Xahu** San Agustin aretoan, 21:30ean.

IGANDEA 22

- **DEBA Mendi irteera ikasleekin: Otogoien-Ganalto-Otogoien –egun-pasa–** Burdin Kurutz Mendi Taldearen ekimenez. Autobus geltokitik, 08:30ean.
- **MALLABIA Mallabiko Mendizaleak: Gaztelumendi eta Sarrimendi** 09:30ean irteera, San Juan de Zengotitatik.
- **MENDARO Mendi irteera: Mendaro-Etxabe-Deba** Iraupen 3 ordu. Irteera udaletxetik, 09:30ean.
- **DEBA Magic Magic Txapelketa Ligako 10. jardunaldia.** Izen-ematea: 7 euro. Informazio gehiago eta izen-ematea: *labur.eus/mtgkulturelkartea.* Kultur Elkarteko liburutegian, 10:00etan.
- **DEBA Txistularien emanaldia** Santa Zezilia Egunaren baitan antolatuta. Herriko hainbat gunetan, 11:00etan.
- **MALLABIA Emakumezkoen eskupilota: Lau eta Erdiko Txapelketa Nagusia** Mallabiko pilotalekuan, 11:00etan.
- **DEBA Banda Gaztearen emanaldia** Santa Zezilia Egunaren baitan antolatuta. Herriko hainbat gunetan, 11:00etan.
- **ELGOIBAR Familia-meza** San Bartolome parrokian, 11:00etan.
- **DEBA Aitzuri Abesbatzaren kantaldia** Santa Zezilia Egunaren baitan antolatuta. Herriko hainbat gunetan, 12:00etan. Kontzejuzarran, 12:30ean.
- **MALLABIA 'Consumiéndonos' helduentzako clown ikuskizuna** Gazteleraz, Virginia Imazekin.
- **DEBA Kina jokoa** Arbil elkartean, 17:30ean.
- **MENDARO 'Ezetz barre egin!'** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **MENDARO 'Gregoria: feminista jaio ala egin egiten da?' antzezlana** San Agustin kulturgunean, 18:00etan.

ASTELEHENA 23

- **SORALUZE Nagusien Kontseilua**. Kalebarren 8an, 10:00etan.



SORALUZE Blues Hotsak

OSTIRALA 20: 19:00etan, DR Feelgood taldea, Antzokian.

LARUNBATA 21: 11:30ean, Musika Eskolako konboa, Antzokian. 13:00etan, Joan Pau Camellas, Paul San Martin & Romain Gratalon-en kontzertua, Etxaburuetan. 15:00etan, Joan Pau Cumellas, Paul San Martin & Romain Gratalon-en kontzertua, Etxaburuetan. 19:00etan, DeRobert & The Half-Truths-en kontzertua, Antzokian. 22:00etan, Sweet Marta & The Blues Shakers-en kontzertua, gaztetxean.

IGANDEA 22: 09:00etan, Dolmenen Ibilbidea, Karakateko aparkalekuan. 12:30ean, The Ubangi Stomp-en kontzertua, Santa Ana kalean. 14:00etan, La Perra Blancoren kontzertua, Plaza Zaharrean. 19:00etan, Barrence Whitfield & MFC Chicken-en kontzertua, Antzokian.



ELGOIBAR Dantza emanaldia: 'Verdiniren distira'

OSTIRALA 20: Verdini dantza taldeak egingo du. Desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonez osatutako konpainia inklusiboak sortu eta interpretatutako pieza horrek mugimenduaren eta giza konexioen ospakizuna eskainiko du. Sarrerak*: herrikoantzokia.eus.* Herriko Antzokian, 19:00etan.



DEBA Gazte Asanbladaren 26. urteurren-festa

LARUNBATA 21: 13:00etan, karro-poteoa. 15:30ean, bazkaria eta bingo musikatua –sarrerak 7 euroan salgai, Koskan–. 19:00etan, Latuna Bando Txaranga. 22:00etan, Zerotan erromeria. 00:00etan, Txamakos taldea. 02:00etan, DJ Erratza. *Tonbola gau osoan. Herriko hainbat gunetan, 13:00etan hasita.

- **DEBA Mindfulness tailerra** Arbil elkarteak antolatuta. Eneko Cabellok gidatuko du. Ikigai zentroan, 12:00etatik 13:00etara.
- **MENDARO 'Indarkeriarik ez, azaroak 25a lantzen'** Azaroaren 23tik 27ra. Ludotekan, 17:00etan.
- **ERMUA Gastronomia tailerra: 'Sushia'** Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatuta. 18 urtetik gorakoentzat. 25 euro –22,50 euro, deskontuarekin–. Plaza kopuru mugatua. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

ASTEARTEA 24


- **DEBA Mugikorrak erabiltzen ikasteko tailerra** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez; saioak Mendatako ikasleek gidatuko dituzte. Tailerrean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurrez, elkartean bertan, astelehenetan nahiz asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era. Arbil elkartean, 10:30ean.
- **DEBA Hitzaldia: 'Haur eta nerabeen neurogarapen egokirako gakoak'** Hizlaria: Silvia Cisneros medikua, ikerlaria eta osasun digitalean aditua. Debako Kultur Elkartean, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Udazkeneko mendi emanaldia** Begoña Santos Olmeda idazle donostiarrak *Mujeres que mueven montañas* liburua izango du hizpide. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Helduentzako ipuin kontaketa** Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan, *Los ecos que nos habitan* izenburupean, Itziar Rekaldek egingo du. Gotzon Garate Udal Liburutegian, 19:00etan.

ASTEAZKENA 25

- **SORALUZE Hitzaldia: 'Colón placentino'** JendartEKIN proiektuaren baitan antolatutako hitzaldia. Tolarekua aretoan, 10:00etan.
- **SORALUZE Auzoko Elkarrizketak** Berbetaldi irekia, bertako hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan aritzeko, euskara erdigunean dela. Euskal hiztunak diren eta ez diren soraluzetarrentzat. Kalebarren 8an, 10:15etan.
- **MENDARO Matxismoaren kontrako talde-argazkia ateratzea** Itaiak deituta, matxismoaren kontrako familia argazkia aterako dute. Herriko Enparantzan, 18:30ean.
- **DEBA 'Sarea gara' ekimena** Debako Sare Feministak antolatua. Foruen plazan, 18:30ean.
- **DEBA Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko elkarretaratzea** Debako Udalaren ekimenez. Foruen plazan, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea**. Kalegoen plazan, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Filma: 'Manas'** Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan antolatuta. Herriko antzokian, 21:00etan.

OSTEGUNA 26

- **ELGOIBAR Manifestazioa, pentsio duinen alde** Duintasunak deituta. Kalegoen plazatik, 12:00etan.
- **DEBA Oinarrizko informatika ikastaroa** Arbil elkartearen ekimenez. Hiru saio egingo dituzte: azaroaren 26an eta abenduaren 3an eta 10ean, 17:30etik 19:00etara. Izen-ematea: Arbil elkartean, bulego-orduetan. Prezioa: 10 euro. Arbil elkartean, 17:30ean.
- **MENDARO Helduen irakurketa kluba: 'Gezurra berdaderoa'** Bertol Arrietaren liburua landuko dute. Asier Serranok dinamizatuko du. Udal liburutegian, 17:30ean.
- **SORALUZE Batzar orokorra: 'Katamarran'** Katamarran ume-txokoko bazkideek batzar orokorra egingo dute. Katamarran ume-txokoan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Gure Balioak sari banaketa** Herriko Antzokian, 18:30ean.
- **DEBA Pablo Ortiz de Zarateren 'El artesano' liburuaren aurkezpena** Debako Kultur Elkartean, 19:00etan.
- **DEBA Irakurketa Kluba: 'Etxe arrotz hau'** Olatz Mitxelenaren liburua landuko dute. Asier Serranok gidatuko du saioa, euskaraz. Ostolaza Udal Liburutegian, 19:00etan.



MENDARO Ormolako Bide Ondoko Leizean topatu duten lehoiaren gaineko hitzaldia

ASTEAZKENA 25: Hitzaldia Asier Gomez-Olivencia eta Alvar Manjon paleontologoek eta Mutrikuko Burumendi Espeleologia Taldekoek emango dute. Udaletxeko udalbatza aretoan, 19:00etan.

OSTIRALA 27

- **DEBA Hitzaldia: 'Aurretiazko borondateak'** Tailerraren bigarren saioa. Arbil elkartean, 11:00etan.
- **DEBA Mindfulness tailerra** Arbil elkarteak antolatuta. Eneko Cabellok gidatuko du. Ikigai zentroan, 12:00etatik 13:00etara.
- **ELGOIBAR Tailerra: aurretiazko borondateak** Aurretiazko borondateei buruzko tailerra egingo dute. Interesatuek Osasun Zentroan eman beharko dute izena. Aita Agirreko areto nagusian, 15:45etan.
- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Odol emaileen bi hilean behingo hitzordua, odol ateratzeak egiteko. Itxaropenan, 16:30ean.
- **DEBA Ipuin kontaketa** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira, ipuin kontaketa, txotxongilo tailerra eta txokolate-jana. Gaztetxean, 17:00etan.
- **MENDARO Mahai-futbol erronka** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Film laburra: 'Lolaren bizikleta'** Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan antolatuta. Doan. Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **DEBA Manex Astigarragaren 'Margolari' umorezko bakarrizketa** Sarrera: 5 euro, *labur.eus/margolarideba* estekan. Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **DEBA Loreto Aramendiren organo kontzertua** Santa Maria elizan, 20:00etan.
- **ERMUA Antzerkia: 'Jo!'** Sarrera, 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

20 BARIKUA **Barrenetxea / L. Apraiz / I. Ugarte**
21 ZAPATUA **Soto / *Yudego / L. Apraiz / I. Lecumberri / *A.M. Baz**
22 DOMEKA **Soto / L. Apraiz / I. Lecumberri**
23 ASTELEHENA **Garitaonandia / H. Burgoa / M. Alves**
24 MARTITZENA **Arriola / H. Burgoa / I. Lecumberri**
25 EGUAZTENA **Fernandez / H. Burgoa /A. Alcala**
26 EGUENA **Yudego / H. Burgoa / I. Ugarte**
27 BARIKUA **Oruesagasti / A. Zalduegi / A.M. Baz**

*09:00-14:00 / *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84


ZINEMA

ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA
'El mal padre'
Larunbata, 21: 19:00, 22:15
Igandea, 22: 19:00
Astelehena, 23: 21:00
'Minions & monsters'
Igandea, 22: 16:30
'Manas'
(Ongarri zinekluba)
Asteazkena, 25: 21:00

DEBA
KULTUR ELKARTEA
'Baba Yaga eta sorginkerien liburua'
Larunbata, 21: 16:30
'Turno de guardia'
Igandean, 22: 19:00

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA
'Sentido y sensibilidad'
Larunbata, 21: 19:30
Astelehena, 23: 20:30
'Sacamantecas'
Larunbata, 21: 22:00
Igandea, 22: 19:30
'La oveja Shaun: Misión calabaza'
Igandea, 22: 17:00
'Los niños están bien'
(Zine-kluba)
Osteguna, 26: 20:30

EIBAR
COLISEO ANTZOKIA
'Mugurza FM 40 Tour'
Igandea, 22: 20:00
Astelehena, 23: 19:30
'Ruega por nosotras'
Igandea, 22: 17:00, 20:00
Astelehena, 23: 19:30
'Jaleos'
Astelehena, 23: 19:30
'Katu kapeladuna'
Igandea, 22: 17:00



Muguruza FM 40 Tour filma.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00187

AZKEN BERBA

Sarraskijaleak



BEGOÑA FERNANDEZ
ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADAKO KIDEA

Asko dira sarraskijaleei aurre egiteagatik mehatxuak eta indarkeria jasaten dituzten emakumeak, hedabideetan agertzen ez direnak ere, gertu ditugunak, sarritan ikusezinak. Putreek gure bizitzak eta gure ingurukoenak –natura osoa barne– biolentziaz betetzen dituzte. Planeta, etxebizitzak... ez dira, ez, espekulaziorako tokiak, bizitza duinerako baizik. Agintedunek sarraskijaleak babesten dituztenez, kaleak hartu ditugu etika eta eskubide hori defendatzeko. Inkilinoa, pentsioduna, autonomoa edo langilea izan, guztioi dagokigu.

Hauteskunde orokorren atarian gaude Maricarmen izeneko emakume baten ausardiari esker, sarraskijaleen gutiziari aurre egin behar izan ziotenen kemenari esker, etxebizitza baldintza eskuragarrietan eta duintasunez izateko eskubidea exijitu dutenen adoreari esker. Etxebizitzarena oinarrizko eskubidea da; hala ere, askorentzat gero eta zailagoa da alokairua ordaindu ahal izatea, gero eta gehiago dira etxegabetzeak, ez baitago etxebizitzan irauteko bermerik. Kito!

Emakumeok aspaldi ikasi genuen lau hormaren barruan gertatzen dena politikoa dela. Azaroaren 29an ez eman aukerarik iragan faxistara bueltatzeari.

BUKATZEKO

Maratoira itzuliko da Jokin Muñoz, etzi, 'tximeleta-azala' gaitza ikusarazteko

Saioa Martin 15 urteko gaixo eibartarrarekiko elkartasunez egingo du maratoia

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Kirol lorpen handiak ditu palmaresean Jokin Muñozek, Soraluzen bizi den saltakari mendaroarrak. Handiena, beharbada, 2023an lortu zuen, Gasteizen. Martin Fizen omenezko maratoia irabazi zuen urte hartan, ordura arte maratoi baten sekula egin zuen denborarik onena eginda: 2.14.50. Baina, zer diren gauzak: sasoikoen zegoenean laga behar izan zion lehiatzeari, belauneko lesio bategatik. Hala ere, sekula ez dio korrika egiteari laga, eta orain, lehiaketara itzuliko da; lehia gosez baino gehiago, elkartasunez.



Saioa Martin eta Jokin Muñoz, maratoirako kamisetarekin. LAGATAKOA

Epidemolisi bullosa gaitzari –*tximeleta azala*– ikusgarritasuna emateko asmoz irtengo da, etzi, Donostiako maratoian. "Ingurukoei esana nien arrazoi on bategatik baino ez nintzela itzuliko lehiatzera, eta orain badut bat: Saioa Martini laguntzea. 15 urte ditu Saioak, eibartarra da, eta ez du minik gabeko egun bat izan hamabost urtean", azaldu du. Azala eta muki-mintzak oso hauskor eta sentikor bihurtzen dituen gaixotasun arraro eta kronikoa da *tximeleta-azala,* minbera oso, eta Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian hamahiru lagunek dute diagnostikatua. Azal hauskorragatik, zauriak, babak eta orbainak izaten dituzte gorputz osoan gaixoek, eta bizi-kalitatea, oso eskastua.

Saioa Martinen alde egingo du korrika Muñozek Donostian, baina beste helburu bat ere izango du: Erik Azula kuadrillakideari laguntzea, maratoia hiru orduz azpiko denboran osa dezan. Hauspoa eta sosegua, bietatik beharko ditu Azulak hiru orduan 42 kilometro osatzeko, eta eskarmentua eskainiko dizkio Muñozek. "Ez dakit noraino lagundu ahal izango diodan, hiru aste baino ez ditudalako izan maratoia prestatzeko eta neuretzat ere erronka handia delako, baina saiatuko naiz haren ondoan egiten ahal dudan tarte luzeena", zehaztu du.

Elkartasun-keinua

Azula da historia horretan hirugarren protagonista: haren ondoan entrenatzen egin dituen ibili luzeek ahalbidetu dute hau guztiau. "Gustura nenbilen Erikekin entrenatzen, eta aipatu nion dortsala lortuz gero lagunduko niola maratoia hiru orduz azpitik egiten. Gero, korrika nenbilen batean, aspaldiko lagun batekin egin nuen topo bidegorrian. Zer asmorekin nenbilen galdetu zidan hark, eta kontatu nion Eriki laguntzen ari nintzela, baina dortsala topatuz gero itzuliko nintzela maratoira. Kuadrillako batek libre zuena eskaini zidan hark, eta halaxe eman nuen izena".

Ordurako ikusia zuen Instagramen biral egin zen Saioa Martinen bideoa, zeinean, besteak beste, Vyjuvek botika eskuratzeko laguntza eskatzen zuen haren familiak. Estatuko erkidego batzuetan hasi dira botika hori eskaintzen, salbuespenezko finantzaketa bidez, eta hartu duten gaixoek aitortu dute hobekuntza handiak igarri dituztela. Osakidetzak, baina, ez du eskaintzen, ez dagoelako Espainiako Osasun Sistema Nazionalean sartuta. "Hunkitu egin ninduen bideo hark. Aita naiz, eta ikaragarri eragin zidan Saioaren kasuak; hainbesteraino, ezen zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Entrenatzera irteten nintzen bakoitzean horixe nuen beti buruan, eta udako lagun batek eman zidan ideia. Erronka solidarioetan nahastuta zebilen baten berri eman zidan hark, eta animatu egin ninduen Saioaren alde zerbait egitera".

> **Azala eta muki-mintzak oso hauskor eta sentikor izaten dituzte gaixoek, eta min handiak**

Saioaren gurasoekin harremanetan jartzea izan zen hurrengo pausoa. "Saioaren amarekin, Susanarekin [Carrey], jarri nintzen harremanetan, eta aipatu nion zerbait egin nezakeela beren kasuari ikusgarritasuna emateko, sare sozialak eta maratoia erabilita; nahi baldin bazuten. Ilusio handiz hartu zuten proposamena", esan du Muñozek. Saioaren ama, Susana, trebea da eskulanetan, eta hark diseinatu du Jokinek maratoian jantziko duen kamiseta. Asteazkenean jaso zuen kamiseta Muñozek, eta orduan ezagutu zuen Saioa, aurreko aldian ezin izan baitzen harekin batu, min handiko eguna zuelako hark. "Sarri izaten ditu halakoak".

Irulezta jantzeko diseinatu du Susanak kamiseta, *tximeleta-azala* duten gaixoek hala jantzi behar izaten dutelako arropa, joskurek-eta min egin ohi dietelako azalean. Balio beza ekimenak minak arindu eta *tximeleta azaldunen* bizitzak duintzeko.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

